

Juan Garmendia Larrañaga

Bidasoaldeko eskulangilleak: Sunbilla, Arantza eta Igantziko etxe- lantegiak



8



1983. Artesanos de la regata del Bidasoa: Sumbilla, Aranaz y Yanci / Juan Garmendia Larrañaga. – Donostia : Txertoa, 1983

1985. Bidasoaldeko eskulangilleak: Sunbilla, Arantza eta Igantziko etxe-lantegiak / Garmendia Larrañaga, Juan. – Donostia : Haranburu editorea, 1985

1997. Artesanos de la regata del Bidasoa : Sumbilla, Aranaz y Yanci = Bidasoaldeko eskulangilleak : Sunbilla, Arantza eta Igantziko etxe-lantegiak / Juan Garmendia Larrañaga. – En : *Artesanía II.* – (Euskal Herria. Etnografía. Historia. Juan Garmendia Larrañaga. Obra Completa ; 2). – Donostia : Haranburu Editor, 1997. – Castellano, euskera

2007

Bidasoaldeko eskulangilleak: Sunbilla, Arantza eta Igantziko etxe-lantegiak / Juan Garmendia Larrañaga ; azala Javier Juanes; marrazkiak eta argazkiak Ignacio Garmendia Galardi. – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2007. – 67 or. : ir. – (Juan Garmendia Larrañaga Bilduma ; 8). – ISBN: 978-84-8419-074-5. – Pío Caro Barojari eskainitako edizioa.

Azalaren argazkia

Javier Juanes

Marrazkiak eta argazkiak

Ignacio Garmendia Galardi



EUSKO IKASKUNTZA - SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS - SOCIÉTÉ D'ÉTUDES BASQUES

Institución fundada en 1918 por las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia, Gipuzkoa y Navarra.
Miramar Jauregia - Miraconcha, 48 - 20007 Donostia - Tel. 943 31 08 55 - Fax 943 21 39 56
Internet: <http://www.eusko-ikaskuntza.org> - E-mail: ei-sev@eusko-ikaskuntza.org

Fotokonposaketa: Michelena artes gráficas. Astigarraga
Digitalizazioa eta argitalpen elektronikoa Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntzarekin

Bidasaldeko eskulangileak: Sunbilla, Arantza eta Igantziko etxe-lantegiak

Juan Garmendia Larrañaga

Orria

Kredituak	
Sunbilla	3
Kaikua	5
Oporra	10
Abatza	11
Gaztagintzarako prentsa	11
Kutxa	13
Sega kirtena	16
Sega zorrozteko arriaren zorroa edo sega-potoa	18
Belar arrastalua	19
Artua eraiteko makina	21
Ara xabala	23
Alfer maillua	24
Esiya	25
Benta berriko saskigillea	26
Arantza	31
Arotza	31
Ferra	33
Txarrantxa	34
Txinga	35

Orria

Errakia	36
Saskigillea	37
Zurgiña	43
Gozogillea	48
Igantzi-ko otarlanategi bat	55
Otargintza	60
Otar mota bereziak	64

Sunbilla

Sunbilla errian zear, bidezabala ta ibaia batera dijoaz. Eta erregebide berauxe da urian barna dijoalarik Kale-Nagusia egiten duena, beste Egutera kalearekin ibaialde batean iri-kaxko luzea osatzen dutelarik. Ibaiondo berean arkitzen dira baita ere Meaka nekazari auzoa eta Bidasoa deritzan beste baten zatia, bertako bizilagunak meakatarrak eta bidasotarrak deitzen dituztelarik.

Sunbillan ba-dirau oraindik ere zubi batek, Errikoetxe ta Kale Nagusiko Amaillenea deritzaion etxe bitartean asiera duna. Eta oraindik ere irauten dula diogu, bigarren karlista gerratean gudari-nagusiek berori desegiteko agindua bete etzalako. Neure erritar eta gai-askotariko idazle Lopez Mendizabal-dar Ixakak esanda dakit nor izan zen gudari-agindu ausle ausarta: bere aita Eusebio Lopez aldi artan Karlos zazpigarrenaren gudaiburu zana. Orrela beraz, gudari onen agindurik ez betetzeari zor diogu, gero Tolosan liburugille sonatu izan zan orretxi, zubi dotore ta estu au igaro al izana, oiñezko ta gurdientzat soilki egiña, noski.

Erreka ta Kale Nagusia barruan dirala osatzen da Sunbillako baserririk aundiena. Or, bidasotar bizilagun batzuek gaiñera, askindarrak eta aritzeder-tarrak deritzaienak bizi dira, Askin eta Aritzeder auzoetakoelek alegia.

Alde ontako erriko etxe batzuk mendi-maldan kokatzen dira, eta beroie artean zearkamearka dijoazen bide batzuek kale izena daramate.

Zubia igaro ta bereala etxe txiki baten ondotik, arategia da bera, enparantzara sartzen gera, ta bertan daukagu Erriko eliza, Bataiatzailleari eskeiñia. Teillatupe zabala duen torrealde bakoitzak ba-du erloju uztai biribilla. Azkenengoz izan giñanean itxirik zegoen. Apainketa lanean ari ziran, ataria lantresnaz eta langintza-gaiez beterik. Orain ikusi al izan degu bere 1926-garrengo erretaula, bertan Juan Bataialariak eta Tiburtzio Doneak toki bereziak dituztelarik, bigarren au lengo Bidasoa auzoko eliz-zaindari izana, ibaiz eskualdetikoa.

Juan Bataiatzaillearen eliza dagoen ordekatik, Goiko kalea artzen degu, Garai-arri ere deitua. Oso bide arritsua da, aldapatsua gaiñera. Garaiarrin

zear goazela etxe batzuen aurretik igarotzen gera Nafarroan maiz ikusi ditza-
k egun itxurazkoak. Bebarrua ta bi bizitzako etxegintzak dira, bigarren au alde-
rik-aldeko zurezko balkoiduna, teillatu egalpean babestua.

Goiko-kale edo delako ortatik genbiltzala, eskubialdetik eskola utzi gen-
dun, eraikuntza berri ta polita. Aurrera goazela Epetxenea, atadi loretsuz,
Mikelenea ta Landernea, etxaurrea egurpilloz ongi ornitua, ta ondoren lau
bide gurutzatzen dira. Gero, Iparrea, ertz arrizkoz eta ormaesiz eta eguzki-
sabaiz osatua, ta aurrerago Ezkerrenea. Emen, etxaurreko estrabetik zintzilik
dakusgun lantresnak argi ta garbi adierazten digu eskulangillearen egoitza
dela. Bereala jabetzen gera eskulangillearen lantegia, edo beronen zati bat
beintzat, lorategi apal batez osatzen dala, mertxikondo baten ondoan arro-
sak, zaingorriak, kalak eta margaritak ikusten ditugularik. Kanpoaldeko xeeta-
sunok barrukalde atsegiñ da gozatsua sumarazten digute. Aurre-susmo
geurekiko xamar oek noski, egiztatu aal izan giñuzen ordea etxeoandrea ta
alaba bat agurtzean, sartu bezain laister.

Ezkerrenean bizi da Larretxea Bertiz sendia. Gurasoak eta iru seme. Eta
bertako nagusi da Prantzisko Larretxea, eskulangillea.

Larretxeatarren arteko lendabiziko eskulangillea Jose Lorentzo Bereau
izan zen, Prantziskoren amaldetiko aitona, 1854 urte inguruan Arantzan jaioa.

Jose Lorentzo Bereau langintza ikasten errian bertan asi zan, bere ezkon-
anai zurlangille trebea zanari laguntzen, azal zuriagatik *zurgiñ zuria* deitzen
ziotenarekin.

Denporaz, Lorentzo Bereau, lanerako ezkerria, Arantzako kaikugillea
bezela ezaguna izan zan. Gizon langille ta zintzoa, bere billobak gogoan du
arek erritar aundinai baiña diruz motz ziranei buruz esan oi zuena. «Beti
poliki nai duna, beti itxuski».

Kaikua, oporra ta abatza moldatzeko, Bereauk urki-zura zerabilkin eta
baita altza ta intxaur zuria ere. Zur-ontzitegi au egiteaz gaiñera, solibuak,
kapiroin eta zurabeak lantzen zituen aizkoraz eta esku-zerraz baliaturik.

Bereau, Arantzako Borda Txikin bizitu zan eta bertan jaio ziran bere zazpi
semeak. Auetako bat, Permin, kaikugintzan aritu zan, lenengo erri bereko
Lopeneko bordan, eta gero bere egoitza Senperera aldatu zuen eta bere lan-
bidean irauin bertan ill arteraño.

Beronika Bereau, Lorentzoren alabetako bat, Juan Joxe Larretxeakin
ezkondu zan, eta beronek, Arantzako Beratsekun baserrian jaioa izanik,
Borda Txikiko ezkulangintza aurrera atera zuen. Laister ordea, erria utzi gabe,
lantokia Ibarla basetxera aldatu zuen, bertan 1956-an irurogeitamasei urte-
kin il zan arte.

Juan Joxe Larretxearen lan-emankizunen bezerorik geienak, kaikua, opo-
rra ta abatza errosleak alegia, Arantza, Lesaka, Doneztebe eta Elizondon
banatzen ziran.

Juan Jose Larretxearen bederatzia ondorengoetatik, lau gizasemeak ziran, eta oietatik bi, Pablo ta Prantzisko eskulangilleak izanak dira geientsuenik beintzat, eta arestian aipaturiko basaontzi oiek moldatzeari emanak.

Dirala amabost bat urte arte, Pablo Larretxeak Arantzan lan egin zuen, Ibarla ta Pitia izeneko baserrietan¹.

Prantzisko Larretxea Ibarlanen jaio zan 1920-garren urtean, eta 1944 ezkerotik Sunbillako Ezkerrenean jartzen da bizitzen. Berrogei urtetako amarkada aldi artan etzan kaikugillerik Sunbillan; baiña jakiñeko gauza zan leenago izan zirala bi, bata Aldameneko bordan eta bestea Arretxeko bordan. Arretxe bordako kaikugille au Larretxetarren senidearteko egiten zan².

KAIKUA

Prantzisko Larretxeak, Ezkerrenea bere etxeko atadian egiten zuen lan. Bere aitonaren lantokian aritu izana gogoan duelarik ere, eskulangintzaki-koan bere aitagandik ikasiari zintzo darraikio.

Kaikua, oporra ta abatza deritzaien zurontzigitzan, Larretxeak urkigaia soilki darabil. Leengai ori ebakitzerakoan, txandaz egokitu zaion bezeroagandik artutako lanaren zernolakoak gogoan izan bear. Egin bear dituen ontziak txikiak diranean –litro bi-dunei deritzaie orrela– Mendaurko basoruntz jo oi du, Sunbillako udalbarrutian, eta amabi-amabost urteko urkiondoa botatzen du.

Baiña ebaketa au ez du egingo aurrez Lauerritako basozainari jakiñarazi gabe, Elgorriaga, Doneztebe, Nabarte ta Sunbillak osaturiko elkartea alegia, eta eraberean Agintariei ere gaztiatuko die zenbat zugaitzondo bota dituen, eta beroien balioa ordainduko Donezteben, erri oietako oien-ondasunen arduradun nagusiari.

Urkia, geienbat, toki malkarretan azi oi da, ebaketarako naiko zaillean, lan ori edozein urte garaitan egiten duelarik, baiña beti ilberrian. Eta gaiñeratu-tuko dut, eskulangille onek ilberri aldiari orri borobildun edozein ondo ebakitzin duela, adibidez, urkiaz gaiñera, lizarra, pagoa ta arkazia. Zugaitzondoak moztu ondoren, katez lotzen ditu eta mandoaren bidez etxeratzen. Lan auetarako, Larretxeak sendikoren bat izan oi du laguntzaille.

1. Eskulangille ontaz mintzo dira Luis Pedro Peña Santiago eta José Antonio Aiestaran Lekuona, «Anuario de Eusko Folklore», 1961 – XVIII alean, 29-37 orrian.

2. Prantzisko Larretxeak egindako kaiku, opor eta abatzaz luze naiz labur idatzi da aldizkari ta egunkarietan. Idazlan oietatik bat aipatuko dut, Fermin Leizaolarena. «Munibe» aldizkarian. XXIII urtea –1971–. Fascic. 4, 549-561 orrialdeetan, Joxe Miel Barandiarani eskaiñitako omenaldiko alean.

Sunbillatar eskulangille onek zur-ontzi aundietakoa molda bear duenean, Zubietako baso urkiz aberatsetatik ekarri oi du bere langaia. Ebaketarako zubietarren bat izan oi du lankide, eta orain urte gutxi arte aizkoraz aritzen omen ziran, gaur ordea, eginkizun berdiñerako eskuzerra naiz motorzerra darabilte.

Zubietatik Sunbillarako ogeitamar-berrogei urteko zugaitzondoan lorreta motor-bidez dagite; baiña aintxiña, mando bitartez edota bei-gurdiz egiten zuten.

Bere zeregiñari buruz leenbiziko neurketak egiteko, eskulangilleak zurezko agatxo bat darabil iltze-oriduna, esan dezadan, bere aitautxi edo aitonarena zela ain zuzen.

Agaitxoaren lenengo iltzea mutur batetik ogeitasei zentimetro terdira dijoa –amabi ontza–; tarte berdiñean dijoa bigarrena, eta neurri berean irugarren eta laugarrena ere. Beste amar zentimetroko tarteak eskulekutzat artzen dira. Agaiaren asieratik bigarren iltzeraiño zentimetroak–ogeitalau ontza–beso bat osatzen dute, agaiaren erdiari dagokiona. Ontzak markaturik dauzka.

Iltze ondoan zurgin-konpasa kokatuz, nai den ontzaraiño iristean, konketak bear duen goiera neurria artzen du. Litro laurden neurriko kaikuaren gorakoa zortzi zentimetro terdikoa da, iru ontza terdi, ago neurria, amar zentimetro–lau ontza–eta ondoaldeak zazpi edo zazpi zentimetro terdi. Eginbidez ordea, sunbillatar eskulangille onek ez du ia esandako agai-neurri ori erabiltzen, eskua baizik edo arra deritzana. Ontzi txikientzat berriz beatz lodia ta bigarrena.

Prantzisko Larretxearen aitona esan oi zuen, kaiku aundienaren goierako neurria arra betea naikoa zala ontza bat geiturik.


Orainartekoak, kaiku, opor eta abatzaren moldaketarako aurre-lanak deitu genezaiokegunak ditugu.

Konketa ontzi bati asera emateko, kaikua dela, oporra naiz abatza, eskulangilleak egur ezea darabil, lantzeko gai samurragoa gertatzen den ezker.

Zugaitzkoa astua deritzan zuroe gaiñean jartzen da. Berori enbor bat da, metro ta ogei luze ta amabi zentimetro alderik-alde, ta lau anka zearka antzean dituen.

Lankizun den zura, astuak gutxi-asko euki oi dituen ziriartean ezartzen da, eta esandako agai bidez naiz eskuz edo arraz neurtu ondoren, eskulangilleak lortzen du bear duen zatia. Kaikua ba-da eginkizun, ebakuntza, tronkozerraz edo arpana bidez, saieska egiña izango da, eta zuzenka egiña, oporra naiz abatza baldin bada eginkizun.

Ondoren, zurgin konpasakin oboa edo lerro biribilla markatzen du, egurrak uzten dion neurrian, zura ezberdiña izanik, eskulekua ateratzeko lain ertz uzten duelarik.



Jarraian, eraberean konpasa darabilkila, eskulangilleak oboaren alderik-aldekoa markatuko du, landugai den zurak uzten duen luze-zabalaren neurrian. Oraiñarteraiñoko langintzabidea berdin-berdiña da kaiku, opor eta abatzaren moldaketari buruz.

Kaikugintzarako eskulangilleak aizkoraz meetzen du egurra, oboak erakusten dion arabera. Baiña eginkizun ontan oso kontuan eduki bear du esku-leku izan bear duen zatia, eta ori obo lerrotik enbor ertzerañoko tarterik audienean gertatzen da. Aizkoraz meetzea aziaz edo aiztoaz obeagotzen da.

Zur-ontziaren itxura lortzean, eskuleku ta guzti, lana urka-ra dijoa. Larre-xeak lau urka ditu etxe atarian, eta laurak neurritz ezberdiñak.

Bakoitzak olak edo anakak ditu, lurrean finkatuak, biltzen dituen kate baten bitartez biribilgunea egiten dutelarik. Urkaren agoan kaiku gaia, ustukizun den egur puska alegia, ziri moduan sartzen da, aizkora-buruz emandako kolpe txikika. Baiña, aurrez, bete-betean tinkotu dedin, kaikugaia ta urkaren gaiñaldea ezkotu egin bear dira.

Ondoren eskulangilleak taratuluua artzen du eta kaikugaiaren erdian zulo bat dagio, eskulekua izango dana zearkatuaz. Geroago, errakiaz baliaturik taratuluz egiñiko zuloa zabalagotzen du; baiña kiderra izango den tokia utziaz. Kiderraren azpikaldea zizelaz melartuko du bear ainbateko lodieran utzirik. Zola apaintzeko berriz beste errakia darabilki, «7» baten tankeradun kako zorrotza.


Bere langintzabideari jarraiki, urkatik kaikugaia atera eta gain-ertza edo ezpaiña borobiltzen dio aizkoraz eta zurgin-zepilluz. Baiña, eskulangilleak zurontziok margo argidunak izatea naiko ba-lu, ikusgarri ta apaiñak, zura legortzen utziko luke lau-bost egunez etxepeko bebarruan.

Kider txuloa birabirginiñaz baliatuz lortzen du eta bere oxka «V» moduan, eskuzerraz baliaturik. Bereala ontziaren kanpokaldea leguntzen du marruxketa deritzan tresna bidez. Apaingarri bezela kaikua bira osoan marra borobillez markatzen du ago ertzetik zentimetro terdira. Ez da berau erreten sakona ariña baizik zerra me-me batez egiña.

Bere lanean aurrera diarduelarik, eskulangilleak kaikua berriro ere dago-kion urkara darama. Or, errakiaz lengo legunketa burutzen du eta kaikua urkatik kanpora duela, alderdi biak marruskatzen ditu kristal eta paper-latzez.

Eskulangilleak egurra legortzea geroke utzi ba-du, orain, konketa bukatu ondoren egin bear du zeregin ori, egur ezeko ontziak ez bai du iraupenik eta auskorra bai-litzake oso.

Prantzisko Larretxearen eskutatik irtendako kaikurik txikiena litro laurden neurrikoa da, eta audienea berriz ogeitabi litrokoa. Erabillienak ordeba litro bat eta zortzi bitartekoak dira.




Gaurko eskulangille onen aitonak bost pezeta eskatzen zituen kaiku aundi batengatik, eta pezeta bat txikiarengatik. Bere suiak gero amasei pezeta lenengoagatik eta bi pezeta bigarrengoagatik. Prantzisko Larretxeak ogeitabi litroko kaikua bost milla pezetan saltzen du eta lareunean litro laurdeneko txikia.

Gizaldietan zear, eta orain gutxi arte, kaikua bei ta ardiak jeizteko erabiltzen zan, eta baita esne egosketarako ere, esnarria deritzana sutan goritua barneratuz. Gauregun, kaikua mamia edo gatzatuarentzat darabilkigu eta etxetako apalgaiñetan apaingarri bezela.

OPORRA

Oporra txuntxur mozkinduaren iduriko da, zerbait makurra. Aspaldi eta gaur ere bai iñoiz, talua eta esnia artzeko erbilli izan da. Gure egunetan ontzi au etxe-apaingarri bezela soilki dakuskegu.

Arestian agertu dudanez, oboaren markaketa arte, oporra ta kaikuaren eskulangintza berdiña da, eta konketa ontzi bion antolakuntza ere oso antzekoa, bere osoan begiratzuz.



Oporra moldatzeko alderik-aldeneko markaketa alde batera uzten da, eta meetze lanean, aizkoraz eta aziaz, eskulangilleak kirtenak izango duen tan-
kera gogoan euki bear. Konketa ontzi onen ustutzeari gagozkiola, errakia era-
biltzea askoz errezagoa da kaikuarenean baiño, emen ez bai du markaketan
kiderraren konturik eduki bear. Gaiñerontzean, araubidea kaikuarekin ikusi
degunaren kidekoa da.

Litroko oporra izan da maizenik aundiena, eta oetakoak eskulangillek egu-
nean zortzi-amar dagizki. Bere salneurria gauregun lareun pezeta da, eta asie-
rako sendi ontako eskulangilleak iru errial eskatzen zituen bere lanagatik.

Litro erdikoa esan dezakegu dela txikiena, laurdenekoa oso erabilli urri-
koa den ezker. Beroien eguneko lan-emankizuna, litrokoarentzat ainbatekoa
da or nunbait.

Prantzisko Larretxeak litro erdiko oporra irureun da berrogeitamar peze-
tan saltzen du, eta bere aitonak erreal bian egin oi zuen. Oporra salmenta
gutxiko zurontzia da. Aurrez norbaitek eskaturik dagiana izan ezik, sunbillatar
eskulangille onen eroslegoa Donezteben dago.

ABATZA

Abatza txuntzur antzeko enborra da kider bi dituna, aldebanatan bat. Gaz-
tagintzan erabiltzen da.

Abatzaren eskulangintza araupideak kaikuarentzat esan ditugunak berak
dira, oboari ateratzen zaion alderik-aldekoa barruan dela. Ba du ala ere zer-
bait berezirik, bere ondoa, oporrarena bezela ez dala gainberakoa, kaikuak
duen modukoa.


Abatza aundiena –gure egunetan ia egiten ez dana– ogeitabost litrota-
rako da eta egun biko lana eskatzen du. Sei litrokoa da Larretxeak geienbat
egiten duena eta litrokoa da txikiena, egun bateko lanaren emankizuna bost
ontzikoia izanik.

Abatzaren balioa, oporrarena bezela, salmenta urrikoa delarik, kaikuaren
antzekoa dezu. Ontzirik aundiena bost-bat milla pezetan saltzen da.

GAZTAGINTZARAKO PRENTSA

Abatza gaztagintzarako erabilia izan dala ta aitatu baldin ba-det, lan
berean erabiltzen dan beste tresna batetzaz aritzera noa. Tolare edo *prent-
sari* begiraldi bat emango diot, berau aintziñako oitura ez bada ere, gure gaz-
tagilleak darabiltena izanik.

Gazta estutzeko prentsa, Sunbillako eskulangilleak tajutzen duena pago-
zuraz egiña da. Onek ez bai du gaztarik tintaz koloratzen beste zenbait egu-
rrek oi dutenez, gaztaiñak adibidez.



Etxtiar asmakizun au bi albo eta iru zear-egur iltzez jositakoz osatzen da. Eskulangilleak aizkoraz eta zepilluz baliaturik albo edo bazterrak gertutzen ditu, ta berrogeitamazapi zentimetro terdi ditu goruntza, amabost terdi zabal, eta iru lodi. Tresna berarekin zola lantzen du eta erdiko tabla ta gaiñekoa. Zolaren zabaluneak bi erretentxo ditu, beroietatik gazta estutuak darion gazure ixur dedin, eta ogeitabat zentimetrokoa da, ta bere luzera, beste bi zear-abearnak bezela, berrogeitaemezortziko. Erdiko olaren zabaleroa amabost zentimetro da eta ogeitabat gaiñekoarena.

Ondotik erdigunera ogeitairu zentimetro ditu, eta ogeitalau erditik gaiñeko olaraiño. Garaikaldeko zear-abearak eta erdikoak bi zulo daramazkite aldebanatan, berrogeitabost milimetrokoak, berrogeitabosteko taratuluaz egiñak.

Zuretzea lortuz gero, bein berriro eskulangillea aizkoraz eta zepilluz baliaturik bi aga biribill ateratzen ditu taju bereko zulo bana dituztelarik. Beko ertzetan egur bat ezartzen zaie biribilla bera ere. Agai oek gaiñeko ta erdiko olak dituztela esan degun zuloetan zear dijoaz eta zolatik bost zentimetro beruntz doaz. Goienetik bera zolatik amasei zentimetrotara gelditzen da.

Gaiñeko tablatik erdikora bi ol-zerrenda dijoaz emezortzi zentimetro bitar-teko dirala. Eta ol-zerrenda auetako bakoitzetik burdin-txafla bat dator bere aldeko egur biribillaren txulotik igarotzen dana. Burniaren mutur bat egurrari itsatsia dago iltze biur lasai baten bidez, eta bestetik iru-bat kiloko zama du zintzilik. Burni oek, irurogeita bi zentimetro luze, iru zabal eta sei milimetro lodi, eragitean eta agak ibillian jarri bigarren maillako palankarena egiñik, gazta estutzea lortzen dute zimitza deritzan ontzi barruan dakusgunez, len zurezkoa baiña orain metalezkoa.


KUTXA

Basetxean sartu baiño len, zenbait lan-abesgintza ezagutzea aitzaki, euskal altzari-sailean nabarmenena den erredizaz ariko natzaizue. Arretaz so dagiodan bada etxeoandreak zapizuria, gari ale, babarrun, arto ta abar gordetzeko erabilli izan duen errediza berezi oni. Kutxa, alegia, eskulangille napar, beste asko bezela bere buru eskolatzaille onek gutxitan egiñ oi duena. Gauz ori gogoan izan bearrekoa da beroiek ornitzen dituzten apaingarriaz mintzatzeko orduan, egikera jakiñeko bati lotzen ez diranak baitira, naiz ta obo arrerdidun eta beste oien antzeko obo laurdendun zizel-lanak maite izan. Esan bear dut ordea, Larretxeak bere aitonari zor dizkiola zizel-lenekiko lenbiziko artuemanak. Bere aurreko arek zimitzaren ondoa oboaz eta zortzi loreor-riz apaintzen bai-zuen, eta orretzek eragin zion gure sunbillatar artistari konpasa ta puntzoziaz baliatuz, apainketa lanean bera ere gozatzea³.

Gaztaiña da, bost-sei urteko legorketa aldiaren ondoren, Larretxeak kutxagintzan maizenik darabilkin egur mota. Eta au adierazi nai nuke, sarri-nik darabille zura gaztaiña dala, inguruetako baserrietan eresia, eskulangille au, iñoiz, intxaur-zuraz ere baliatzen bai-da, gaztaiñak bear duen legoraldi ber-bera eskatzen duen ezkeru.

Estalki-olari ertza ateratzean dadukagu kutxa izango denaren asiera. Ortarako, erregela ta arotz-lapitzaz baliaturik, zuraren lau aldeak markatzen ditu, eta ondoren, aizkoraz melarragotuko bear duen itxura artu arte. Onela, kanteatu deritzaion lana burutzen du. Gero, marruzkai edo zepilluaz gaiñal-dea landu ta leguntzen du, eta azpiko edo barreneko aldia melarragotzen, lodiera gutxienean berdindu arteraiño. Lan bera berritzen du zolaldeko olakin eta bazterrekoekin. Naiz ta zolagunea lantzen, ixkutuan gelditzen delarik, gai-ñerantzekoan ainbateko arretarik jarri ez. Ontan ez du beste eskulangille batzuen oiturik jarraitzen, uztargilleena adibidez, oek ikusten ez diran uneak bereziki lantzen saiatzen bai dira.

3. Kutxari buruz ba-da azter-lan argitaraturik. Nere liburu «*De etnografía Vasca –Cuatro ensayos–: El Caserío – Ritos fénebres –Galera del boyero– Las Ferrerías*», 24-26 orr., arki ditzazke irakurleak kutxarekiko zenbait berri.



Tablak ebaki ta gerturik, beroiei muturretan lazoak ateratzen dizkie elkarkidetu ditezen zizelaz eta zerra fin baten bidez. Lendabizi albotako sargai-kiak lortzen ditu, eta, oien marratuan, ematxuloak, aurrekalde ta atzekaldean.

Ondoren, eskulangilleak aurrekaldea zizelatzen du. Ortarako konpasaz, taratulu ta zizel ezberdiñez baliatzen delarik. Berriro ere esango dut, dotorezi-gaiak, geometri-marrazkiak geienbat, ezin ditezkelako olako edo alako erti-eskolatakoak bezela artu, eskulangillearen bat-bateko sormen-indarrari zor zaizkionak izanik.

Zizel-lana amaituz gero, Larretxeak olen tresnamenduari ekiten dio, alboak edo bazterrak eta atzekaldean iltzaturik utziaz; ez ordea aurrekaldea, lazoen bidez loturik dijoana. Au ordea erdizkako tresnadura besterik ez da, estalki edo gaiñeko ola falta bai-du.

Jarraian, lau oiñak ezartzea dator, lendik, aparte, batere apainlanik gabe gerturik dauzkanak. Txuntxur itxurazkoentzat zerraz baliatzen da, marruzkai ta zizelaz, eta borobillak berriz tornu-bidez lortzen ditu, berori gaur elektrik indarrezkoa ba da ere, lenago eskuzkoa zan. Ankak lau, bana iltzez josiak dira. Birekin zola-aldea eta beste birekin alboak, atzekoaldekoak ba-dera, eta koska aldera aurrekoak. Ozkadurak aurrekaldea ta saietsaldeak egalunetzen ditu. Koxkatua zearo soilla naiz landuagoa izan ditekete. Bere zabaleroa ama-lau-amabost zentimetro da ta iru-lau lodiera, eta iltze buru-borobillaz, suarotzak berak moldatutakoz josirik gelditzen da.

Erredizaren estalki-sendogarrien bi ertzak iltzez josirik gelditzen dira, bi bixagra dituelarik Serraila, burnizko euskarriduna, aurrekaldean ezarria, estalkiaren azpikaldean finkatzen da. Intxaur-margoz eta argizariz igortzi eta gertu dago kutxa bezeroaren eskuetan jartzeko.

Larretxeak moldaturiko kutxak ez dira neurritz berdinak izaten. Aundiena deritzakenak metro ta berrogei zentimetro zabal ditu, berrogeitabost ondoz eta irurogeitabost irurogeitamar goibeak, oietatik iru terdi-lau, estalkiari dagozkioelarik. Erabillienak sei zentimetroko ankadunak dira, metro ta ogeitamar zentimetro zabal, berrogeitabost ondoak, eta irurogei-irurogeitabost goieradunak. Neurri ontako altzarrietan estalkia iru zentimetro gaiñerontzeko goiti ageri da albotan eta bi aurrekaldean.

Lantegi ontatik irtendako kutxarrik txikienak irurogeitabost zentimetro zabal besterik ez ditu, ogeitamabi ondoz eta berrogeitairu goieraz, eta lau zentimetroko anka biribillak.

Prantzisko Larretxeari, kutxa aundiak aste beteko lana damakio, eta txikia berriz iru-lau egunean burutzen du.

Eskulangille au ez da ordea Sunbillan kutxagintzan ari den bakarra. Azaldu degun lanbide-lege berdiñez, bere illoba bat Prantzisko Agesta, Eskolneko bordan bizi dana, kutxa ta beste zenbait errediza ere tajutzen ditu nekariztzak uzten dizkion txolarteetan.

SEGA KIRTENA

Larretxearen lantegitik irtendako sega-kirtena, gai ortan nik ezagutzen dedan guzietan ongienik landuena da noski. Lanabes au ez da beti neurritz berdiña izaten, segalariaren giza-luzeerari egokitua baizik. Lan-tresna onek lurretik nekazaliaren galtzarberaiño iritxi bear du eta aurreko eskutillak berriz eskurairiño, besoa beruntz utzirik.

Sunbillatar eskulangille onek moldatzen duen sega-kirtenaren agaia gaztain zurezko da. Ortarako enbor gaztea aukeratzen du, sei-zortzi urtekoa, erriko basoan eskuratua.

Ebaketa, ilbera aldian egiten du aizkoraz, eta egurra ganbaran legortzen utziko, urte osoan gutxienez.

Gaztain-zura zearo legortuz gero, eskulangilleak zatitzeari ekingo dio, esku-zerrabidez, lanak eskatzen duen arabera. Jarraian agaiari alde bat aterako dio.


Lan orri aizkoraz ematen dio asiera eta arotz-zepilluz bukatu. Ori berori berrituko du beste iru alboekin, bakoitzari dagozkion eskuairak dagizkiolarik. Ondoren, eskulangilleak ertzak zentimetro bateko zabaleroan uzten ditu; otxabatu deritzaio lan orri. Baiña mutur bateko bi zentimetro terdi eta beste teko amabost, bere ortan gelditzen dira, au da, otxabatu gabe. Urrengo, irazia deritzaiona egiten du, agai lodia legunkiro melarragotu alegia, garaialdeko ertzetara ondoratzeraiño. Orrela, bealdea, sega ezartzen zaion tokia, ogeitamaika milimetroko aldeak dituen laukia gertatzen da, eta beste muturrean berriz, ogeitabederatzi milimetro alde bakoitzak.

Sega-kirtenak bi eskuleku ditu. Bakoitza ezpel-puxka batetik aterea da. Goiko eskulekuak atzeko eskutilla du izena eta Larretxeak aurreko eskutilla deitzen dio bekoari. Batetik bestera berrogeitazazpi zentimetroko tartea dute, baiña bitarte ori zentimetro bat geiago edo gutxiagokoa izan diteke.

Eskuleku oek egur ondo legortuarekin tajutzen ditu. Eginkizun ontan lendabizi aizkora darabil, eta gero, berorri dagozkion moldez edo orkoiz baliatzen da.

Aurreko eskutilla lortzeko darabilen orkoia, zurezko eskuaira da. Eta arotz arkatzez egindako lerroaren gaiñetik ebakuntza dagio, esku-zerra ongi zorrotzuakin, ezpel-zura egur gogor eta giartsua baita. Bederatzi terdi zentimetroko saillean, oietatik iru terdi ziri moduan agai barrutik gelditzen dira, trabeska eskulekua jaiotzen da. Une au borobilla da, amairu zentimetro terdi luze, eta, beste lau lerro bikiak pareka apaingarri gixa dituenak, tornuan lortzen ditu.

Atzeko eskutilla tankera bikoitzduna da. Zuzena agaiaren burua ezartzen dan tokia, eta makurra, kako antzera, gaiñerakoa, nekazaliaren eskuari egokitua.



Moldeak eskatzen duen arabera egurra markatu ta ebakuntza erdiborobillerako bueltako zerra deritzaiona erabiltzen du. Atzeko eskutillak ogeita lau zentimetro ditu bururen-buru, eta beroietatik amaika sail borobilla osatzen dutenak.

Eskuleku oni kirten-ziria barrenduko den txuloa egiteko –aurreko eskutilla bezela, zerra-bidez aterea–gramillaz baliatzen da. Tresna onekin agaia ta kiderra markatzen ditu. Gero, birabirgiñakin atzeko eskutilla iru tokitan zulatzen du. Zizelaren bidez iruok bat biurtzen ditu. Jokalege berdiña erabiltzen du aurreko eskutilla ezartzeko zulogintzan ere.

Erreskadan, agaiaren azpiko alde bati burdin-txafla ezartzen dio zazpi zentimetro luze ta ogeitamaika milimetro zabalduna, lau iltzebiurrez josirik utziaz, xokogune bakoitzean bana. Burni-txaflak erdian zulo laukisuzen bat darama. Eskulangillea zulo ortaz biliatzen da egurra zentimetro terdi bidean ustutzeko. Zeregin orretarako, Larretxeak birabirgiñ bat darabil burnizko zulkaiduna. Tresna onekin bi zulo egingo ditu, ta beroiek, len ikusi dugunez, bereala zizel-bidez, bat bakarra biurtzen dituelarik. Oartarazi nai dut, Sunbilla egindako lanabes onek burni sendogarri bat daramala, oso gutxitan ikusten dena.

Azkenik, sega-kirtena bear bezala azkenburuturik uzteko, beko muturrean zearkako ebaketa damakio aizkoraz. Ebaketa au lanabes xume onen itxura ona gordetzeko soilki egiña da.

Prantzisko Larretxeak egunean bi sega kirten dagizki. Direla urte batzuk ogei-ogeitabi pezetan saltzen zuen tresnatxoa, eta gaur berreun da berrogeitamarrean.


SEGA ZORROZTEKO ARRIAREN ZORROA EDO SEGA-POTOA

Prantzisko Larretxeak sega zorrozteko arriaren ontziska ere egiten du, Sunbilla, beste zenbait tokitan bezela, sega-potoa deritzana.

Larreko zorro au zurezko puxka bakarrez osatua da, gaztaiñekoa bereziki, ezkoan naiz igarrean naierara landua.

Eskulan oni asiera emateko, ogeitabost zentimetro gorako enborra ebaki, zatitu –lau puska egin– aizkoraz, eta ondoren, erreminta berberaz, egurra melarragotzen du, gero tresna lirain izango denari, oraingo, itxura zakarra emanaz.

Segidan, garaikoaldetik, ginbeletaz, ogeitabi zentimetro sakoneko ideki-dura bi dagizki, eta ondo zorrozturiko kutxariekin da esandako zulo bi oietzaz baliaturik egurraren barru-ustutzea egiten du. Gero, zorroa nekazaliaren gerrikoari katigatzeko bearrezko duen kirtena aterako dio Azkenik ontziskaren aurpegialdea leguntzea dagokio, arotz-marruzki edo zepilluz egingo duena.



Oartaraz dezadan, zorrotzarriak ezkotasuna gorde dezan, segalariak bere lanean diardunear, segapotoak ura daramala barrenean.


Zortzi orduko lanaldian, Larretxeak zortzi sega-poto tajutu oi ditu, gauregun bakoitza eun da ogeitabost pezetan saltzen duelarik.

BELAR ARRASTALUA

Segarekin zerikusirik duen tresna, belar-arrastalua edo belarbiltzeko eskuara da. Sunbillako eskulangileak atontzen duen arrastalua gaztain egur gaztearekin moldatua da, bost-sei urtekoa, egur legortuan landua.

Lanabes au tajutzeko, eskulangilearen lenengo eginkizuna burua gertutzea da, eta aizkoraz ta arotz-marruzkaiaz edo zepilluaz beteko du. Zear-buru onek irurogei ta amar-amabi zentimetro luze ditu. Bere zabalera, erdialdean, iru zentimetro terdikoa da, eta ertzaldetara bi zentimetrotaraño urrituz dijoa. Gorakoa, bi zentimetro terdi.

Zear-burua lortuz gero, muturalde bakoitzean iru zentimetro terdiko uea utzia, gaiñerakoa amabi atal berdiñetan markatuta banatzen du, konpasaren



bidez. Marka oen gain, amargarren zenbakidun metxa batekin eta birabirgiñaz, beste-orrenbeste xulo egingo ditu egurrean batetik bestera eta beroietan ortzak kokatuko. Ortz oek egiteko, lizar naiz alkazi gaiezkoak, amalau zentimetroterdi dunak, eskulangilleak aizkoraz egur igartua melarragotzen du, eta, zepilluaz, puxka bakoitzari ertzak ateratzen dizkio, mutur alde bat bestea baiño melarragoa utziaz.

Eskulangillearen arloa errezagotzeko, zear-buruari ortzak ezartzean egikera jakiñekoa ta eginpidezkoa darabilki. Ortarako ortza mutur alde baten sartzen du eta ondoren, berori berritzen du beste aldean bizbateko. Orrela, zear-burua arotz-maiean ortz oin gain gelditzen da eta lana jarraitzeko eroso gertatzen.

Ortzak alde medarrenetik kokatzen dira beti, zear-buruan barna bat goitik eta bestea betik txandaka. Eskulekuarentzat zulogunea egiteko eta berebat kabillarentzat, taratuluz, biragirgin eta zizelaz baliatzen da.

Zear-burua amaiturik, eskulangilleak kirtena lantzeari ekiten dio. Kider au gatzain-zurezkoa da, egur igarrean maniatua, eta bere luzerik luzenean metro terdiraiño iristen da. Borobilla da, bekoaldetik estuagoa, garaikaldeko bi zentimetro terditan izan ezik, bertan lauki itxura duen unean gramillaz markatutako arian ortza ateratzen dio zearka antzean, berorren bidez buruaren zuloan ezarri al izateko. Kirten muturra ebakitzeko eta ziria zear-buruan kokatzeko gezurrezko eskuairaz baliatzen da.

Arrastelua zurezko kabillaz gogorturik doa. Kabilla zear-buruko zulotik kiderraren zuloraiño dijoa, ontatik amabi-amalau zentimetro bitarte.


Larretxea eskulangilleak iru olako tresna moldatzen ditu eguneko. Es-kuarea gaur azokan irureun pezetan saltzen da, baiña iñoiz, zortzi pezeta soilki ordaintzen zioten. Bere aitonak berriz bi pezetan egiten zuen tresna ori bera.

ARTUA ERAITEKO MAKINA

Sunbillan tresnatutako tramankulu au neure begiz ikustearren, Larretxea eskulangilleak Txuri bordara laguntzen dit, aintziñako nekazari etxera, direla ia larogei urte erri bereko Iragieta basetxeko borda biurtua.

Txuri borda, arri zaarrezkoa, iru iratz-meta etxe gordelari bitxi bai-liran dituela, Azkin auzoko mendixka gaiñean eraikia dago. Bere atari zaarrera iris-tearren bide arritsu ta malkarrari eldu diogu, Iragieta aurretik dijoana, eta Ermiateako ormazar erdi-erorien ondotik, beiñola lami-biltoki izana.

Aizkora ta zepilluak baliaturik, arto-eraiteko tresnaren bi alde baztarrak gertutzen ditu, aritz-zurezkoak. Alde bazter oek metro bat luze ta sei zentime-tro terdi zabal dira eta sei lodi. Lodiera au erditik ogeitamar zentimetro bidean bederatzi zentimetrotara iresten da. Eta une sendoagotu ontan joango da ardatza.



Alde baztarrak gerturik, eskulangilleak bi zear-abe bidez elkartzen ditu larogei zentimetro luze ta bederatzi zabal eta iru lodikoz, berrogeitamasei zentimetroterdiko tartez banaturik uzten dituela. Zear-abeak aizkoraz eta zepilluz apaintzen ditu, eta albotan ezartzeko zuloguneak birabirgiñ, teratelu ta zizelaz lortzen ditu.

Bereala ardatza ezartzen dio, aurrez, erdiz-erdi ogeitamabi zentimetroko alderik-alde duen kurpilla itsasten diolarik, amabi zurezko ortz burdiñeztatuak eta txuntur antza dituen, amar zentimetro luzekoa.

Kurpilla lortzeko, aurrengo konpasa darabill, eta aren lerrogunetan barna zerra bidez ebakitzen du. Egiteko ori burutzeko egurra leguntzen du lima-raspaz. Ortzak kurpillari itsasten zaizkio bere ziri ta guzti, eta bakoitzari dagokion kabillaz josirik uzten dira. Gaztain-zurezko kurpill au, ardatzari egokitzen zaio ol-xerrendak lauki-eran, aldebanatan finkatuz.

Ardatza sagar-egurrezkoa da eta larogeita zortzi zentimetro ditu, eta oietatik sei terdi mutur bakoitzekoak bere kajoitan ezkutaturik gelditzen dira. Ardatzaren mutur oek zirriztu bat daramate amar-amabi burni-txaflaz banaturik, bira-biraka dabilzala, urrean dagon lurrera kajoietako artalea jalkiarazten dutelarik.

Aipatu kajoiak bi dira, gaztain-zurezkoak, aizkoraz eta zepilluz labratuak. Ao laukidunak, ogei zentimetroko aldea, bere gorakoa ogeitamalau zentimetro, eta amabi ta amabi azpikaldeak dituztenak. Kajoi auek alde bazterrei iltzebiurrez katigatzen zaizkie.

Albo bazter bakoitzaren atzetik agai zuzen bat sortzen da. Agai oek irurogeita amar zentimetro dituzte luzeran. Bekoaldetik albo bakoitzari iltzebiurrez loturik, beste muturrean beroiei dagokien kirtena daramate ogeitairu zentimetroko eskuairan. Agaiak eta eskulekuak aritzezkoak dira, aizkoraz eta zepilluz landuak. Kider batetik bestera irurogeitamasei zentimetro luzeko zearabe bat dijoa, lau zabal eta bi lodikoa. Zear-abe au ere aritzezkoa da eta guziaren sendogarri gertatzen da.

Asmakizun onen bereiztasunei jarraiki, lantresnaren antolamenduari dagozkionak berak izanik, oartaraziko dut, albo bakoitzeko aurrekaldeak uztai eta biribillerdi itxura duen burni bat dadukala urritz-agaia sartzeko, bi metro ta ogeitamar zentimetro duna, abereari ezarri al dakion.

Alboetako bealdetan, kajoi bakoitzarenpean, ogeitamar zentimetroko burni-koillara edo ortza darama, berorren erdia gutxi-gora-bera, lurrean sartzan delarik. Koillararen amar zentimetroko burdin-sailla, bi zentimetro aldeko kuadroan, albotik gora irtetzen da, berorri egurrezko ziri baten bidez egokitzen zaiolarik.

Albo batetik eta kajoi atzetik, agai bat irausgarria ateratzen da, tresnaren alde batera naiz bestera jarri leikena darabilkiñaren gogora. Agai au, irurogeita bederatzi zentimetro luzekoa, eskuairan azkenburutua, ereintza-arrastoa markatzeko da.

Artoa eraiteko tresnagintzak astebeteko lana zemakion eskulangilleari. Azkenaldi ontan Larretxeak lanabes au tresnatzen ez duelarik ere, erabiltzen da oraindik tramankulu au. Bere balioa orain ogeitamabat urte, irureun da berrogei pezeta zan.


ARA XABALA

Aria, area, arria, arrea, ereintzarako lurrari azken gertuera damakion lana-besak, Sunbillan ara xabala du izena.

Tresna onen atzekaldearen zabaleroa larogetabi zentimetro da eta irurogeitalau beste aldea. Zuretxea, aizkoraz eta arotz-zepilluz moldatua, aritz-zurezkoa da. Lau zura daramazki luzetaka eta bi zearka. Zurak sei zentimetro zabal ditu eta zazpiterdi lodi, eta bere luzera alboetan metro ta amalau zentimetrotara iristen da, bi barrualdetan larogeitamalau zentimetrotara laburtzen delarik.

Zearkako aitzineko para aurrekoarentzat eta gibleko para atzekoarentzat, tresnaren ertz bakoitzetik ogeitalau zentimetrora gelditzen dira. Zearabeak eta ortzak ezartzen diran zura oien txuloak, Larretxea eskulangilleak birabirgizaz lortzen ditu, taratulu ta zizelaz.

Ara xabalaren ortzak ogei dira, zura bakoitzean bost. Bi ta bi zentimetro lodi, ortz oek burdiñezkoak dira eta bere neurriak, ogeitamabost zentimetro luze, oietatik zortzi luzetakako zuratik arutz ateratzen direnak.



Bere bealdeko ertza kakotua due eta lau, aurreko lauretan izan ezik, beroiek era bereko izanik ere, aitzo zorrotz antzekoak dira ta lurra urratzen dute. Garaikaldean lau zentimetro bidean sartuak eta bean bi tertian, aritz-zurezko zirizka batzuen bidez tinkotzen dira.


Lanabesaren atzeko muturretik zazpi zentimetrotara, abe batetik bestera eskuleku makotua dijoa, are-kirtena, alegia. Are-kirtena gatzain-zurezkoa da eta bere tankera berezia eman al dezaion, aurrez egurra surtan berotzen du. Are-kirtena, para deritzaion altza-zurezko agai-zuloan tinkatzen da. Kider erdialdetik, para au aurreko zear-aberaiño doa, beroni iltzebiurrez loturik geldituz.

Lan-tresnaren aurreko muturrak burni baten bidez lotzen dira eta uztai bat daduka aberearen lorretarako katea erantsi al dezakion.

Ara xabala erabiltzen dan lanabesa da, eta berori moldatzeak lau eguneko lana du Larretxearentzat. Bere balioa, ortzik gabe, bost milla pezeta da, eta bere osotasunean berriz zazpi milla.

ALFER MAILLUA

Lanabes au lurra xeatzeko erabiltzen da. Bere zuretzea aritzezkoa da, metro ta amabost zentimetro luze ta larogeitaemezortzi zentimetro zabal, aizkoraz eta arotz-marruzkaiaz melartua.



Bere barnean altza-zurezko iru zunbill daramazki larogeitalau zentimetro luze ta amalau alderik-alde. Ortzdunak dira eta beroien metalezko ardatzak zuretzeak ezarririk dauzkan burnietan kokatzen dira. Zunbill bakoitzak, amabi zentimetroko berrogeitamalau ortz ditu zabalero guzian banaturik, eskulangileak indarrean sartuak ginbeleta bidez zuloak egiñ ondoren. Au da alfer-mailluaren azpikaldea, landu bear den lurra ukitzen duena. Garaikaldea olez ongi itxia, eta zanpagi aztunez ornia, tresnak lan ohea egin dezan, bi pago-egur daramazki ongi tinkaturik eta eski moduan, tresna irauliz alde betetik bestera eramatea erosotzen duelarik. Ori errezagotzeko, zuretzeak alde baten duan zulotik lokarri bat ateratzen da burnizko uztaiduna.

Alfer-maillua tresnatzeko, Larretxea eskulangilea, aizkoraz, marruskaiaz eta ginbeletaz gainera, zerraz, mailluaz, birabirgiñaz eta zizelaz baliatzen da.

Lantresnak daraman burnikia, Doneztebeko errementari edo suarotz batez tajaturikoa da.


Azkeneko egin zuen alfermaillugatik lau milla eta bosteun pezeta jaso zitun.

ESIYA

Esiya deritzan tresna, Gipuzkoan ola eta espardea ere deitua, beste izen batzuen artean, lurra xeatzeko erabiltzen da.

Geienetan altzazko zuretzea darama, metro eta emezortzi zentimetro luze, eta metro ta ogeitabost zabal atzekaldean, eta metro ta amar bestaldean, au da, aurrekaldean.

Aurreko zear-abe edo burutik atzekora edo gibelesko aldera sei gaztain agai edo ziriek daramazki bakoitza bere txuloan ezarririk. Agai edo ziri oek



urritz-txaraki fiñez eioturik gelditzen dira. Zuretxe aurrekaldetik metal-uztai bat ateratzen da abereari eraskai bezela.

Esiya tresnatzeko, bere lanerako arri aztunagoz edo ariñagoz zamaten delarik, lur trinko ala samurragoen arabera, eskulangillea agaiak aurreko eta atzeko zear-abetan ezartzen asten da. Ondoren eiolana egiten du eta, azkenik, albotako zear-olak josten ditu. Erabiltzen dan lanabesa da. Bere salneurria, orain ogeitamar urte berrogei pezeta zana, gaur irumilla egiten ditu.

BENTA BERRIKO SASKIGILLEA

Sunbillako saskigilleak Benta-berrin dauka bere lantegia. Doneztebetik gatzela eskubitara bidezabalaren ondoko etxe baten.

Benta-berri arresi kokkor baten esparruan eraikitzen da, bi platanondo ederren kerizpean eta prantzes piñu abetia izenekoz ornitua. Etxe-ertz baten, eta zatar itxura geiegirik erasteke, ba-du zerritokia iratzez estalia. Etxeak bi ixuraldeko teillatua du. Erditik sarrera duela, leioa aldebanatan, bebarrua ta bi etxebizitza dauzka. Lenengoa iru leioduna eta goikoa sapaillio edo balkoi luzeduna, zurezko zola ta burnizko barandakin. Bere orma garbi ta zurituaz, arri gorritzta berrerantsiak ageri direla, ongi zaindutako etxagintza da, bertaratzera deitzen duena.

Benta-berriko atarian eskubitara denda zar baten aztarrenak arkitzen ditut, aintziñako Benta baten ondakiñak, bere lilluramena noizbait izandua, noski, eta gaur daraman izenaren egiztagarri.


Beste aldean eskaratza edo sukaldea, argi ta alaia bera. Sukanpai ez oso aundiaren ondoan eta berorren alasa-gaiñean, zenbait argimutill doratuak, eskuargi bat, almariza eta kafe-igogaillua, antxe agartu genduen etxeo-andrea. Alkitxo baten exerita, artua berexitzen diardu. Eta bertan, gela onen sarreran laister agertu zan Benta-berriko etxejauna, Miguel Apeztegia, giza-
seme iztuna, parre erraz eta atseginduna.

Miguel Apeztegia da gauregun Sunbillako saskigillea. Eskulangille au orain irurogeita amar urte jaiio zan, Lesakako Sorginzulo baserrian. Eta bere jaiotetxean, Rafael bere aitaren, eta bere anai Rosarioren ondoan, ikasi zuen gztain-zimitzak eiotzen. Rafael Apeztegiaren sendiak urteko bederatzi illa-bete era guzitako saskigintzari eman oi zizkion, udaraldia teillagintzari, aintziña errietan ain zabaldua ta garrantzizkoa zan lanari.


Miguel Apeztegiaren saski-lantegia lauki itxurazkoa da. Etxeatzeko txoko baten kokaturik dago, leio eder batek argitzen duelarik. Benta-berriko atzekaldeko aldebanatan, ur-potzua ta labea daude, eskulangillearentzat bear-bearrezkoak.

Sunbillako eskulangilleak lau saski mota dagizki, gztain-txaraz baliatuz. Buruzare lauki-zoladuena da, eta ago borobilla, gauza asko eramateko erabili-
llia; esporta izenez ezaguna, buruzarearen itxura berekoa baiña neurritz txikia-

soskia esitzeko moldia edo armazona
moldo para la confeccion de la cesta




burruntzikiyaka armazona
plantilla para preparar el aro de la cesta



ozia
cuchilla

ordia edo asto zarie
cesta



i.g.9.

goa, txerri-janarekin darabiltena, eta saski terrerua izenez ezaguna, etxegin-tzan maizenik erabilia, eta len batean bidezaiñak edo kamiñeruek. Saski terrerua, beste oien tankera berekoa, Miguel Apeztegiak tajutzen dituenetakorik txikiena da. Eskulangille onek berebat egiten ditu ordia eta astozarea izenez ezagutzen diran saskiak. Otar onekin egin oi da soroetara zimaurrekarria, eta bere ondoa itxi-irikitzen dena da, metalezko txafila baten bidez giltzarena egiten duen eta otar zumitzartean dagon argoilla arrapatzeraiño. Beste aldean, bixagra moduan, bi gaztain-zimitza dauzka.

Sunbillako etxelangintza ontan azkeneko aipatu dudan saskiari begiraldi bat emango diogu. Ordia edo asto-zareari arretaz begiratuko diogu bada. Apeztegiaren lan-emankizuna, eredu ta lan-egikeraz, eta baita lanbide izenak ere Arantzako saskigille baten kidekoak, geldiro azterbegiratuko ditut Nafarroako Bosterrietako uri ortaz aritzean.

Sunbillako saskigilleak, bere eskulangintzak eskatzen duen gaiaz ornitzeke Lau Errietako baso aberatsetara jotzen du. Ebaketarako negualdia artzen du, eta, joandako urteetan, langaia txeratzeta astoaren bidez egin oi zuen. Gaur ordea, gertueneko bidezabalera zaldi bidez egiten du, eta gero berriz motor-gurdiz.

Txarakia, bost-bat urtekoa, legortzen uzten da etxe atarian zabaldurik, amabost egunetik illabetera, eguraldi bustia ala legorraren arabera. Baiña eskulangillea arduratuko da joan-aria erdialdean geldiarazten, txara zearo legortu ez dedin, saskigilleak dion bezala, zura pixko bat zimelduta utziaz.

Aurrerago, eioketarako lain txaraki, urterako bear dana bere ustez, artu ta uretara daramazki. Gero potzutik bear ainbatean atereaz joango da. Orduan aizkora artu eta txarakiak mozten ditu otarraren zolari egokituz, orain dakigunez, ordia edo asto-zarea deriotzaionaren tankerakoa, eta labian sartzen ditu. Or uzten ditu egosten, orduerdi batez txara fiña bada, eta ordu ta erdiz lodia ba-da, luzetaka doazen burni-barratxo batzuen gain.

Labea lauki-zuzena da, bi metro luze ta larogei zentimetro zabal. Lanbi-deak berak uzten dituen kondakiñez bazkatzen da eta burnizko txapa bat da labe-agoaren atea.

Txarakia labetik ateratzen dijoan bezala, otargillea lan-alkian eseritzen da eta egurrezko mailluz joka, matxetiaren bidez ebakidura bat dagio mutur baten –egurra lertu esaten diotena–. Eta zirriztu onen bidez bi eskuz baliatu-rik txara bi erdi egingo du. Jarraian, matxetiaz beste ebakidura egingo du txaraki baten erdialdean eta eskuz urraturik saskigilleak lenengo zimitza lortzen du. Egikuntza au berau berrituko du esku-artean daukan zuraren lodiak ortarako egokiera damakion aiñean. Saskigille alkian jarri ta nabala-bidez txara azalgabetzen du. Leku bertan, aziaren bidez zur-zerrendak leguntzen ditu, onela eioketarako gertu gelditzen direlarik.

Ordia edo asto-zarea deritzan saskirik arruntenak irurogeitamasei zentimetro luze ditu, berrogeitasei zabal eta gorakoa, estalkirik gabe, berrogeitasei zentimetro.

Otar au tajutzeko ogeitabost zimitza metrokoak gutxi-gora-bera, moldean sartzen dira, goitik bera eta iru zentimetroko tartea utzirik batetik bestera. Zerrenda aueri tirante-gaiak deitzen zaiete. Tirantegaiok saskiaren zurajea osatzen dute.

Bealdeko muturretik ogeitabost-bat zentimetrotara, moldearen eutsi-uztai-petik gelditzen dan saillean, alegia, eskulangillea eioketan edo esitzen asten da. Eginkizun au esitzeko zimitz-bidez betetzen du, metro bat edo bi luzekoak eta tirantegaiak baño melarragoak.

Saskiak eraman bear duen gorakoa iritxiz-gero, agoan uztai bat sartzen dio burruntzikia izenekoa, eskulangilleak armazona deritzaionaren bidez lortua, aurrez txara beroturik. Uztai au bilduaz, muturrak iltzez josita, tirantegaiak otarbarruraten ditu, beroien ertzak nabalaz zorrotzuz, esiaren tartean tinkotzen direlarik..

Ondoren armazona atera eta beste uztai bat ezartzen dio bekoaldean, tirantegaiaren ogeitabost zentimetro landu gabe geratu direnak esiaren barrukaldetik azkenburuturik utziaz, uztaia bilduz beste aldean bezela.

Azkenik, eskulangilleari estalkia gertutzea dagokio, otarraren ondoari ezartzen zaiona. Ortarako burruntzikia lurrean ipiñi, eta bere luzetasunean bost tirantegaiak zabaltzen ditu, metro ingurukoak. Uztaian ertzalde baten bi oiñak jarririk, tirantegaiak sendotzen ditu eta esi-zimitzekin eiotzen asten da. Zimitz-eiotze oni erditik asiera damakio uztaia barnean delarik. Beronen gaiñean, saski-ertzetan erabillitako lanarikera erabilliz, tirantegaiaren mutur zorrotzuak biltzen ditu, estalkiaren barrenaldeko esituan gurutzatzen dituelarik.

Estalkiaren eiotze-lana egitean bi usgune utziak ditu bakoitza iru-bat zentimetrodunak bata bestearengandik ogeitabost zentimetro bitarteko. Ortarako uztaia iritxi baiño len azken tirantegaiaren esitua biltzen du. Onela, tapakia saskiari ezartzerakoan, utsik gelditutako sail bakoitzean zimitza bilduko du bisagra lana egingo duen ertzaldea esiaren alde bakoitzean, barrena ta kanpokoak, bi iltzez josiaz.

Beste aldean sail bat eio gabe utzia du. Tarte ortan joango da larreko serrailla. Otar-karelak metalezko uztaitxoa darama, ta bertan txapa bat kokatzen da, uztaia bilduaz, saskiaren esituan dijoan beste burni-argoilla baten katiatzen dela. Eta naikoa da uztaitxoa mugitzea estalkia itxi edo irikitzeko nai dan erara.

Arantza


AROTZA

Arantza nafar-uria ikustatzeko Igantzi-ko Bentan uzten degu erregebidea, eta etengabeko aldapan gora zazpi kilometro zearka-mearka igaroz gero, erribildu ortara dijoan bidea utzi ta bestea artuko degu, lengoa beziñ biurria, eldu-asmo genduen erriko enparantzara zuzenean garamazkiña.

Arantza erri bakarti eta bazter-samarra da, eta zer oietxeri esker, iñolaz ere, zor die bere bereiztasunen irautea, bere izaera ain nabarmen da oso bestelakoa. Enparantza, beure Errikoetxe arkupedun arruntekin, mendi-giro paketsuz inguraturik dakusgu, gu geienbat bizi geran mundu eziñegon eta zaratatsu ontatik ain ezberdiña izanik, guretzat benetan atsegingarri. Egunean zear noizik eta beiñ erritarren batek zearkatzen du zola gogorrezko kalea, zaldi ongi ezia aougalez eutsi eziñik bezala daramakila. Elizdorreko erloju-soiñuak bakarrik bein da berriro bere dangatekoz gogoratzen digu naitaezko denboraren igarotzea. Eta Arantzako erloju orren soiñu neurtuekin batera erriko bizi-ardallaren biotz dan enparantzara iristen dira baitaere txingurea jotzen duen burniaren maillukada ots legun-biziak, gure errixketan geroz eta urriago entzun ditezkenak, noski. Danbateko aulak belarrietaritzen zaizkigu, tangateko urduri ta ongi neurtuak, guk ikusten ez degun burdiñolaren batetik datozkigunak; baiña ez oso urrutikoak, itxuraz. Uste genduena laister egiztatu al izan gendun, pauso gutxi eman bear izan bai giñuzen, etxarte biurri bat igaro ta aroztegira eldu giñan, Errikoetxearen iparraldeko ormatik metro batzutara, elkarren aurrez-aurre bi atedun estalpe bat, ta alde batean leio bi zituena.

Arantzako arotztegian abere-perratzeko arkeria deritzana daukagu. Gauregunean oso leku gutxitan ikus dezakegun arkeria, zear-abe baten tinkotua Teillatuari eusten dion zear-abe edo petrala bai benetan sendoa.

Lantegi ontan ikusten ditugu baitere iru txingureak. Oietako bat, eun da zazpi kiloduna, arkeria ta sutegiaren artean kokaturik, egur-mokor igar beziñ beltzaren gaiñean, eta beste biak biburdiñ oso txikiak, mai luze bati itsatsirik. Taladrue dun maia eta estokak deituriko bi iltzebiurriak.



Sarreran ezkerretara, sutegia daukagu, atzeko orma zakarrean kokaturik. Albo batean auspoa, arotzak agai baten bidez erabiltzen duena, muturrean duen burniuztaitik zintzilik burnia daramana, zurezko eskulekuduna, erabillia-
ren erabilliz zerbait urritua. Bosterrieta deritzan Nafarroa mendialdeko sutegi
au arrikatzez baliatzen da; leenago ordea, zeregiñ berdiñerako egur-ikatz
erabilli oi zan.

Aroztegiko zologaiñ ezberdin da trakets-samarrean, perra batzuk ikusten
ditugu bearbezela landurik eta sailkaturik. Zaldi ta asto perratzeko izan oi
dira orrelakoak, etxe-langintza ontan ez bai-da abelgorrientzat lanik egiten⁴.

Angel Zugarramurdi Etxepeteleku, Arantza uribilduko Orunea deritzan
etxean jaioa da, orain irurogeita amabi urte. Eta sendi eskulangille onen kon-
daira zerbait aztertuz, zera arkitzen degu: Patxi Zugarramurdi burniarotzaren
aitaldeko aitona, giputxa zala, alegia. Oiartzun-en jaioa, eta Arantzan 1913-
garren urtean il zen arte, erriko arotza. Bere seme Orunean jaioa, aren esku-
langintzaren jarraitzaile zintzoa izango zan; baiña, zurarotzaren marruskaia,
taratulua ta zizela, burniarotzaren sutegi, txingurea ta aiotzaz trukutzen zitue-
larik. Alejo Zugarramurdi, ori zen eskulangillearen izen deitura, Bidasoa-ko
Bera-n, Balentin Goikoetxearen sutegian lanbidea ikasia zan. Zazpi urteko
ikastaldia egiñ ondoren, bere errian egoitza jarririk, 1885 urtean, 1922-tik
1939-ra bere seme Aingerurekin lantegian dakusgu, ta ordundik Arantzako
arotz bakar gertatu zan, bere sendikoen artean jarraipenik gabea.

Angel Zugarramurdiren sutegi ontan ganadu perraketan aritu dira, eta
emen zeaztu eziñ ditzakegun beste lan askoren artean moldatu dituzte,
burdi-kurpillen uztaiak; aizkorak –Leitza ta Ezkion ikusi genituen teknika-arauz
egiañak–; nekazaritzako aria edo arrearen ortzak; aitzurrak; ateorpo neurri
ezbediñekoak, enbor pitzatzeko ziriak, eta baita azeri arrapagailluak ere ta
gaztaiñak erretzeko danboliña, txartana deitua.

Baita ere moldatzen ziran suz-landuriko txarrantxa –aberea esku-
menderatu ta eroso eraman al izateko asmakizuna– txinga –enbor karriorako
erabillia–, perrak eta errakia.


Orain, perragintza, txarrantxa ta txinga aztertuko ditugu, ta baita errakia
ere, berori beste eskulan batekin lotutako tresna delarik, kaikua, oporra ta
abatza izeneko ontzingintzan bereziki erabiltzen dela dakigun ezker⁵.

FERRA

Ferra burnilantzeko, erdi neurrikoa, erabilliena, zaldientzakoa, alegia, otze-
an ebakitzen da txingura gaiñean epaiziri-bidez, ogeitabost zentimetro luze ta
ogeitamar milimetro zabal ta sei lodiko burdin-txafla, altzairuzko mailluz joaz.

4. IX garren mende aurreko perraketaz ez-jakiñak gera.

5. Sunbillari buruzko idazlanean aipa ditugu Arantzako kaikugilleak.



Puxka onek kaillua du bere izen⁶ eta arotzak alde batetik tenaza-bidez elduaz sutegira darama. Emen muturralde bat ongi berotu, eta txingura gaiñera dakar berriro, tenazaz estuturik maillukatzera ferra erdiaren antza artu arte. Ondoren, eta sutegiaren berotasunaz baliaturik, suarotzak tenazak utzi eta zulakai-bidez mazuakin joaz iru ferra-zulo dagizkio. Bereala, tresna oiek erabilliz eta lan bera berrituz, beste aldea osoro buruturik gelditzen da.

TXARRANTXA

Txarrantxa, abere okozpean finkaturik, berau eskumenderatzea errezten duela, oso suaroztegi gutxitan moldatzen dute.

Sutegian berotu ondoren, txingura gaiñean tenazaz oraturik, eta maillu kolpez, lenen burni-txafla bat eta gero bestea–biak ogeitamar milimetro zabal eta lau lodi ta irurogei luze–berari dagokion burni-kakoa ateratzen dio. Kako au muturzorrotza da, ogeita amabost milimetro luze ta sei lodi, gero lurrean oztutzen utziko duena.

Jarraian, puxka bat alde zabalenetik artu ta arotz-maiaren estoka edo iltze biur bati lotzen dio. Amabost bat milimetroz agirian uzten du. Orduan eskulangileak, banan-banan zazpi ortz moldatzen dizkio iru ertzeko limaz baliaturik. Lan orixe bera berrituko du bear bezala jarriaz, beste aldetik ere, gero beste ainbeste bigarren burnikiakin egiñaz.

Puxkei ortzak ateratzea bukaturik, banan-banan, burni kakotatik tenaza-kin eldu eta esku-taratulu bidez bakoitzari zulo bana egiten die, zazpi milime-

6. Oartarazi nai genduke ferra ertzak ere kailluak dirala.

trokoa. Baiña beroietako bati zulo bat geiago egingo dio beste muturrean, amalau milimetro erdiz-erdi duna, aberearen eraskin-ugalaren kati-leku izan dedin.

Ontara iristean, eskulangileak zazpi zentimetro luze ta seis milimetro lodiko burni-agaxka artu ta sutegitik igaro ondoren biburdin txikienean moldatzen du, maillu txikia artu ta «S»ren tajuan utziaz.


Berriro puxka ortz eta zulodunak berotu eta iltzebiur usgunean bere erdi-iriki jarreran ezarririk, seska erdiaren itxura emango die, maillukadaz eta burni-kakotatik eskuz eldurik. Geroenean, tajaturiko burni-ziri muturrak beroiei dagozkien zazpi milimetroko puxken zuloetan igaroaraziko ditu. Orrela ertzak itxirik gelditzen dira, otzean eta mailluz joaz. Puxka elkartartetuak sutegira daramazki berriro ere burni-kakoak gori-gori dirala biburdiñean borobilduagotuz. Kako oietako batekin abere burualde edo kaprestuaren uztaiari erantsiko dio, eta besteari, burni argolla baten bidez, berrogeitamar bat gramoko metal bolatxo ezarriko, bere egitekoa txarrantxatik tiratzen ez danean, bolatxoaren astuntazunez, aberearengandik askaturaztea izanik.



TXINGA

Txinga deritzana aberebidez zugaitz-enborrak karriatzea errezagotzen duen tresna da. Txinga puxka birek osatzen dute. Biribil antzeko uztaia da burniki baten zulogunetik igarotzen dana.

Txinga moldatzeko, taiel-bidez, amabost zentimetro luze ta berrogeitamar milimetro zabal eta zazpi lodiko burdin-txafla ebakitzen da. Eta ogei zentime-



trotaraiño luzaraziz, alde batetik ertzalde zorrotzagodun uzten da, bestea baiño estuagoa. Ondoren, burnitxafia berriro berotuaz, eskulangilleak altzairuzko zulakai-bidez, amabi milimetro erdiz-erdiko zuloa dagio burualde edo zabalunean. Jarraian, sutegitik igaroz-gero, txingura gaiñean maillu-zartaka, ogei zentimetro luze ta amar milimetro lodiko burni-ziri bati karel tankera borobilla emango dio, erdi itxirik burdin-txaflak daramala dakigun zuloari erantsiz. Geroago uztaitxoaren ertzak galdatuko ditu eta txingura gaiñean erabat itxirik utziko du.

Txinga erabiltzeko, bere ertz zorrotza, mailluz jota, zortzi bat zentimetro sartzen da enborrean eta uztaitxotik zear dijoan katez abereak karriatu al izango du.

ERRAKIA

Errakia moldatzeko goimaillako galtzairu jatorra bear da, berrogeitamar zentimetro luze, ogeitamar milimetro zabal eta zortzi lodierakoa, Burni-barra berotzen da eta txingura gaiñean da mailluz muturalde bat gogortzen diote amabi bat zentimetro bidean. Ondoren, beroan, ingura gaiñean eta betiere mailluz, suarotzak berari dagokion itxura emanaz-gero, bear dun zabaleroa damaio zurezko eskulekua ezarri al dezaion. Eskulekua galtzairuan barrena amabi zentimetro biden sartzen da eta ginbeletaz burnian egindako zuloan iltzebiurritz sendoturik gelditzen.

Oraiñartekoakin kiderra edo eskulekua tajaturik gelditzen da. Murrta edo agoa lortzeko, sutegian berotuz-gero txinguran maillukatzen da galtzairua. Arotzak puxkaren alboak zanpatuko ditu, bear den tokian, eta zastakai itxuran utziko erdialdean zabalxeago dala ertzetan baiño. Betekizun au buruzteko, suarotzak burdin-puxka bein da berriz birberotu bear izaten du.

Sastakai murrta ongi zorrotzurik, eskulangilleak tajutzen ari dan tresnari dagokion kakoa lortzen du. Ortarako txinguraren ertzaz baliatzen da, berorren gaiñ maillukatzen duelarik.

Bere lanari jarraiki, puxka artu eta estokara edo tornura darama. Or otzean marruskatzen du agoa ongi zorrotzuta uzten diolarik. Murrta bear bezela zorrotzuta, bein berriro surtan berotzen du gereiz margo bizia artze-raiño; gutxi beroturik ordea, ta bereala urtegian sartzen du bear duen aogo-zoa izan dezan, tresnaren egokitasunari dagokionez.

Iñoiz ba-daki altzairuzko murrta moldatzean ogei edo ogeitamar zentimetro bidean gaiñontzeko burnizko zatiarekin sugaldatzen ere.

Angel Zugarramurdik oso gutxitan tajutzen du orain errakia deritzaion tresnarik, bere erritar eta kaikugille Prantzisko Larretxea bai du bezero bakarra, lendik dakigunez Sunbillan bizi dena.

SASKIGILLEA

Arantzako saskigillea erritik urrun bizi da. Otargille onek Iturzen borda basetxean du bere jakiñeko egoitza eta bere lantegia, Zerrado deritzan nekazari etxetako baten ondoan. Orra beraz zergatik Zerradoruntz abiatzen geran, nafar lurralde ortan arkitzen bai-da gure ikasmiñaren asegaia.

Otarako bidezabala erdialdean bezelatsu utzirik, Arantzako enparantza ta Igantzirako bidegurtze bitartean. Eskubitara goruntz goazela, bide arritsu ta oso pikoa artzen degu. Ingurumari atsegintsu batetik zear goaz gure ibillaldian, bide zola onekotik beste zola txarrekora aldatzen gulararik. Bide sail bat gatzaindi zaarkitu artean barrena dijoa, Igantziko Bentan Bidasoara urak ixurtzen dituen Arrata erreka ondotik. Bidexka errekatxorekin jolasean bezala dijoa, Errota zubia, Amosen bordako zubia eta Imizarta zubia, beste zubitxoak tarteko dirala, beiñ uraz andik eta beiñ uraz emendik ia ustegabeaen aurrera garamazkitelarik.

Goi-alderuntz igoaz, eskubialdera uzten ditugu Igetako borda, Erreneko borda ta Barrazabaleko borda deituriko basetxeak. Azkenengo au besteen gaindi ta bakarti gelditzen delarik. Esandako etxadi onek eta Zerradokoek, Arantzako Eguzkialdea deritzan auzogunea osatzen dute.

Pendiz txiki batek Zerradora garamazki, ta bere inguruan bi zerri uxarka ari dira eta artzai-zakurra or dabil zabaldian barna saltari. Gu ikustean ordea, ardizakurra gelditurik zaunkalari oldartzen zaigu. Emakume gazteak, gero etxe-koandrea bera zela jakin genduen, leio-oial atzeko erdi-ixkututik begira zegoan, eta on itxurazko gizon adintsu bat goi bizitzako leiatillara agertu zitzaigun.

Guk gerealdetik berezko aurrera bildurra gaudituz, basetxe bateko atea jo gendun, laister asko bertako bizilagun oro aurrean genduzkalarik. Eta lendabizi aurrak, geroxeago gurasoak, eta azkenik, aitona, len urrutitxotik agurtu genuena bera. Aurrera sartzeko, legezko ez baizik ziñezko eskea onartzuz, gure estrañeko ikustaldia sukaldeari. Bertan, mai-inguruan exerri eta oparo eskeinduak gulararik, pozik oartzen gera sendi onek etxeko burubidetzan dagerren zentzu ona. Zerradon ikustendanez ba-dakite oraingo aurrerapen berri erosoiei leku ematen, lenagoko bizikerari alainbatean eutsirik, baiña zaarra, aintxiñakoa delako bestegabe erabat baztertzeke.

Konturatzen gera ekonomika-sukaldea arima gabe dagoela. Surik gabe, otxik eta baztertuxea, alegia. Su-kanpai gaiñeko txapaldan eltzetxoak, kafeontzia ta eskuerrota edo igogailua dakusgu. Sutondoko burniak zaar egitura aundikoak direla ageriko gauza da, eta beko su ederrak eguneroko gauzen joana ta irudimenezko sorkariena aiñ ongi uztartzen dituelarik, butano gasaren suargia erabilkorra bai baño kaxkarra derizkiogu.

Sukalde atsegiñ onen barne-giroan dagokigu Luis Madariaga, Iturzen-bordan bizi dela dakigun saskigillearen zai egotea. Denbora aixa dijoakigu ume-kin txantxetan, gurasoekin solasean, eta Xalbador Madariagari galdezka, etxeko atautxi edo aitonari, alegia.

Xalbador Madariaga, Igantziko Iñarburu baserrian jaio zan, direla larogei-tabost urte, eta amasei-amazazpi izango zituen, bere gurasoekin batera Arantzako «Pericon»-bordara aldatu zenean. Gerostik eta famili berria sortu zuenean, bere bizi izandako erritik urbil, Ximonen bordan jarriko zuen bere egoitza, eta bertan jaio zan Luis len aipaturiko semea. Eta ba-dira ogeita amazazpi urte Zerrado delakoan bizi dala.

Eskulangintza alorrean ba-dugu Xalbador Madariaga onengan gutxitan gerta oi delako edo, zerbait jakingarririk. Saskigintza lana, gauregun bertan-bera utzirik duena, bere semearengandik ikasia du. Beronekin egin zuen ikasketa lana ta bere ondoan eman zitun otargintzari eskeñitako urteak.

Zerrado-ko atautxi edo aitonak bere leenari buruz beste zerbait ere azaldu zigun, guk iñolaz ere uste ez genduen. Larogei urtedun aiton bizkor au berekasa ikasitako soiñujolea degu. Madariaga izan da beraz, urteetan Arantzako soiñu-jole, bere erriko jai-atsaldeak alaitzen zituena. Eta bere esku-soiñ –iñoiz inpernuko auspoa zeritzanarekin– ingurutako erritara joan oi zan, kontratuaren arabera, amar-amabi pezetagatik edo, lanera. Bere etorreraren zai-zai egon oi ziran erriko jai naiz iñauteriz, Saldias-en, Donamaria-n, Oitz-en, Mugaire-n, Oronoz-en, Legasa-n, Lesaka-n, Igantzi-n, Sunbilla-n, Zubieta-n da Goizueta-n. Beroietako jendeaurrean agertzeak, garai aietan bizi izandako amets lilluragarriak dakarzkio oroimenera.


Xalbador Madariagak gordetzen du oraindio ere maitekiro bere azken esku-soiñua. Beragaz astia ematen du eta gaiñera barru-eskea asetzen. Orain bere betiko doiñu ezagunen entzulegoa bere etxeakoak dira noski, umeak batez ere. Billobatxoak, begi alai ta arriturik bere inguruan exerita, adi-adi dituelarik.

Geu ere ustegabeko entzule gertatu generalarik, soiñu-jole onekin gozatu gara. Bere doñu sailla aski ezaguna ta errikoa zaigu, Andre Madalen-etik asi ta, ainbat gizaldien entzungarri izana. Beingoz bada, gure irudimena inguru gauzetatik bestetaratuaz, aspaldi artara garamatzi, gure erriaren leen aldira.

Luis Madariaga aurrean ikusteak ordea gogorazitzen digu gure Zerrado-n egotea eskulangille onen lanbidea aztertzea dela. Orrela beraz, eskulangille onekin ba-goaz bere lantegira, basetxe ormari itsatsia dagon lan-ola apalera. Ez gera baiña gu bakarrik joango. Arañoko bide laburrean, metro gutxi batzuk besterik ez, arantzatar larreko soiñujole zaarraren doiñuz langundurik goaz.

Luis Madariaga berrogeitamabi urteko gizaseme sendo ta begiarte argi-koa degu. Gudaritza aldia bete ezkerostik izan zuen lenengo artuemana sas-kigintzarekin. Ikasketa aldia laburra izan zen eta Igantzi-ko Bentan egin zuen, Pedro Mari Zozia zenaren lantegian.

Iru eskail-mailla benetan igo nekezak daude bidetik otarlantegira bitar-tean, eta bere ataurretik Arantzako uri-kaxkoa, urruti-xamar baiño argi ta garbi dakusgu. Gela onen zola arrizkoa da, goialdea berriz karebeltzekoa, eta ba-du leio zabala ere kristal ezberdiñekoz ornia.



Beste onen kideko etxe-lantegi askoren antzera, begiztatzan ditugu emen ere, alkitxo bat atzekorik gabea, jakiñeko saski-alkia ta labea.

Labia egituraz lauko-zuzena da, adrilluzkoa, igeltsuz jantzia. Ahoa ixteko ba-du zurezko ate arrastakaria. Lantegi bertan sortutako zirpillez betetzen da. Txirbillak labe-zolan bakarrik zabaltzen dira, aien su-piztuak eta ke-lurrunak, ormatik ormara dijoazen burni-barratxoan gaiñean ezarritako txarakiak egosten dituelarik.

Darabilzkien lanabesak oek dira: azia, nabala edo aiztoa, zurezko mazeta, matxetia, saski-burnia, ta neurri-makilla, au da, makil koxkaduna, zumitz-eiotze neurketak eskatzen duenez, eskulangilleak ortarako erabillia.

Arantzako lantegi ontan begiztatzan ditugu baita ere iru moldiak. Bata saski aundienarentzat erabiltzen da, gorotz edo zimaurretarakoa; bestea measkia izenekoarentzat, kopa-saskia ere deitzen zaiona, eta irugarren moldea arrantzaleek darabiltena tajutzen erabillia ta beragatik arrai-saskia deituraz ezaguna.

Madariagak beste otar bat ere egiñ oi du arrantzarekin zerikusi duena, eta da amorraia ibiltzeko gorgolla, molderik gabe egiten dana.

Lantegi ontan dakusgun lan-alkia saskigilleak berak tajutua da, eta moldeak berriz, Fernando Albiztur, Arantzako zurgiñak. Azia izeneko erreminta Leitza-n landua da, eta nabala edo aiztoa Lesakako sutegian Rafael Lanz-ek egiña.


Luis Madariagak dagizkin otar mota guziak Arantza eta Igantzi mendietako gaztain-txara daramate. Gai-ebaketa, aizkoraz egiñ oi du, neguan, otsaill eta epaillan. Langai au bere lantokira ekartzeko beorrrakin egiten du lorreta edo karraioa.

Txarakiaren legortzealdia ez da beti berdiña izaten eta amabost-ogei egunekoa dela esan diteke. Gero, eskulangilleak urteko lanerako naikoa derizkion ainbat ur-potzuan utziko ditu. Urrena, bear ditun neurrian, lantegiratu, eta an aizkoraz enbor gaiñean, ebakiko ditu moldatzera dijoan saskizolak eskatzen dion ainbatean.


Saski aundia deritzan otarraren txarakiak metro ta irurogei ta amar zentimetro ditu, metro ta amabost measkiarenak eta metro ta berrogei bear ditu arrai-saskia egiteko zerrendak.

Txarakiak nai dan neurrian moldaturik eskulangilleak labean sartzen ditu, len esan degunez. Saillean jarriko ditu, lodierari begiraturaz. Ogeitamar minutu labe barruan naikoak dira txaraki melarragoentzat, ta lodiagoak berriz ordu ta erdi bear dute.


Labetik ateratako txarakiakin, saskigillea lan-alkian exeritzen da. Matxetia ta mazeta-bidez txaraki pitzatuko du mutur batetik, onela egurra lertu deritzaiona egiñik gelditzen da. Jarraian, ebakidura orretaz baliatuz, txara eskuz erdibitzen du.



saski aundiena



meoskia



arrai saskia



amorria ibiltzeko gorgolla

Langaia gertutze lanari jarraituz, geroko zumitz-eiotzeari begira, matxetia-kin berakin txaraki erdi bakoitzaren muturrean beste pitzatua dagio. Onela ateratzen du eskuaz baliaturik lenengo zumitza, beste orrenbeste egiten jarraituz txararen lodiak agintzen duen arte. Eginkizun au burutzean zumitzak azalgabetzen ditu, eskuz, edo zaila gerta ba-ledi, nabalaz.

Segidan, eskulangillea aulkian exerita azia deritzan tresnaz baliatzen da. Onela zumitzak leguntzen ditu, bana-banaka, otargintzari asiera emateko gertu-lanak amaiturik.

Saski aundiena, measkia deitua eta arrai-saskia deitzen zaiona, eginbide bereko eskuantzearen ondorio dira; beragatik, saski aundienaren egikuntzari bakarrik begiak ezarriko dizkiogu eta gero amurrai-otarraz emango degu zeaz-tasun geiagorik lan au burutzeko.

Saski aundiena egiteko, zolagaiñean bost zumitz zabaltzen ditu, batetik bestera bost edo sei zentimetroko tartea utziaz. Gaztain zerrenda oek, beste-akin gurutzatzen dira bata gaiñetik eta bestea azpitik. Eiotu onen utsune-txoak, zol-zumitzak deritzaian artekoak, beste zimitz fiñagoen bidez betetzen dira, luzeran, lendabizi jarritako bost zumitzen neurri berekoak. Eskulangi-lleak zumiitz-eiotze lan au atzekorik gabeko aulkitxo baten exeririk egiñ oi du, maillu-kolpetxoka egiñ ere.

Bereala, ondorengo esia tajutzeari so egiñaz, eiotuaren alde batera gel-ditu dan zimitz zatietako bat erdibitzen du, orretarako saski-burnia deritzan tresna ezauna eskuz joaz darabilkila. Eta saskiondoko eiotua zeatzago ta sendoago gerta dedin, bi zimitz mearrez bilduko ditu, otargilleak zumitz zaba-lak aitzoz ebakitzerakoan lortuak.

Gero, zol-zumitzak deritzaian eio gabeko zatiak, eskulangilleak goti artu esaten zaiona egiten du. Au da, zola gaiñean, otarraren ondo izango dana ta bukatu dagoena uzten du. Bereala, gelditzen dan zimitz-mearrarekin joste-lanari ekingo dio, zolzimitzen gaindi ta azpitik igaroaz. Onela zimitz mear muturraren ogei zentimetrora iristean bestearekin elkartzen du, eta bi oien bitartetik –obeki uler dezagun zimitz mear zarra ta berria deituko ditugunak–, iru zol-zumitza eiotuko ditu goruntz aldeari asiera emanaz.

Eskulangilleak zimitz-eiotzeari iru bira eman ondoren, moldia ezartzen du, burniari bidez ondoari katiaturik. Moldearen gaiñetik zumitz gurutzatzeari jarraituko dio.

Txaraki fiñ batekin goi-uztai edo karela gertutzen du, alde-aldeko bere txikitasunagatik, amabost minutuko labealdi ondoren tajutzen duelarik. Otarraren neurritan mozturik, eskulangilleak alkian jarrita beroan eskuz lantzen du. Bi eskuekin txara sakatuz eskubiko belaun gaiñean bear duen tankera damakio. Gero ordea, okonduak deitzen zaien lau zati makurrenak, oietxek dira saskigillearen ekiñaldirik gogorrena eskatzen dutenak. Lenbiziko okon-dua ta irugarrena eskubito belaunez baliaturik tolestaten ditu, eta ezkerre-

koz bigarren da laugarren makurguneak. Bere tajukera lortu ondoren, uztai au zolagaiñean jarri eta oinpean eutsiaz, iru-lau iltzerekin josten du, azke-
nean errematxaturik.

Bi eskulekuen utsunetaraiñoko goiruntza iristean, alanbrearia uzten du, moldia kendu eta nabalaz zola-zimitzak zorrozten ditu. Azken eginkizun au berealaxeko karela ezartzeari begira egiten du, dakigun bezela, uztai ori otar-
gilleak lendik gerturik baidauka.

Uztaia saski-barrendik gelditzen da, eiotako sailletik sei bat zentimetrora eta ordun saskigilleak zola-zimitzak biltzeari ekiten dio eskuleku izango diran usguneak moldatzearen. Ori egiñik, karelatik biran gaiñez gelditutako zumitz muturrak ta gurutzetuaren tartean ezartzen ditu. Lan ori bukatzean, eta esku-
toki izango diranak utziaz, gaiñontzeko sei zentimetro bideko sailla eiotzen joango da. Ortarako zimitz-mearrak erabiltzen dituelarik. Saskigillearen azken-
saioa, zimitz muturrak apaintzea izan oi da.

Amorraia ibiltzeko gorgolla edo atzi-sarea molderik gabe tajutzen da. Bere ondoa zolaren gaiñean eiotuaz moldatzen du, zumitz-melarrez, gutxi-asko, saski
audienean ikusi degunez. Ondorik ezagunenak ordea iru zumitz daramazki alde batera eta zazpi bestera. Ondo au laukizuzena da egituraz, gibelaldea izan ezik, berau borobilla delarik, atzekalde ortan zumitz erdimakurra ezarri zaiolako.

Otarra onen eioketan zerrenda oso fiñak erabiltzen dira. Aurrekaldea gai-
ñerontzekoa baiño zerbait goituagoa du eta itxigailu bat jartzen zaio geiene-
tan alanbrearizkoa.

Estalkiaren zuretzea zumitz mee baten bidez osatzen da eiotuan katiga-
tzen delarik.

Arantzako saskigille onen lan-emankizun urriak Elizondo-n, Irurita-n, Zuga-
rramurdi-n da Bermeo-n zeukan bere salmenta lekua. Azkenaldi ontan ez du
arrai-saskirik moldatzen, eta beste gaiñerakoak ere bere bertako bearra bete-
tzeko lain soilki.

ZURGIÑA

Teodoro Larralde arotzaren oroitzak bizirik dirau oraindiokan eta atsegiñez
gogoratzen dute Arantzako erri-elkarte txikian⁷. Larralde 1878-an jaio zan Aran-
tzan, Maudineko bordan, eta bertan bizitu zan, 1964-ko dagonillean il zan arte-
rañokoan. Bere aurtzaroan, aren sendiak auzo bereko Lorbido baserrira aldatu
zuen egoitza. Eta zurgin-lanbidea ikastera Teodoro Larraldek Lorbidotik Bera
Bidasokora joan bear izaten zuen, Martiñ Jose Mitxelenak zeukan lantegira,
bere, ainbat aldiz aipatu degun Zerrado-ko bere auzokide erritarrarena.

7. Orren antzeko zerbait esan dezakegu Bixente Bergara zurginaz, len aipatu degun Larral-
deren aurrekoa. Bixente Bergara, Landondo etxean jaio zan, Irullegi deritzan Arantzako auzoan.

Ikasleak amazapi urte besterik etzituen, eta bi urien arteko joan-etorria oiñez burutu oi zuen. Astelen goizean bere etxea utzi eta larunbat arrastaldez itzuli, eta orrela iru urtetan zear.

Bera Bidasoan ezagutu zuen Bibiana Iribarren, etxalartar neska gaztea, gero bere emazte izango zana. Larralde ogeitabat urterekin ezkondu zan, eta aldibatez, Erreontenean bere betiko bizilekua jarri arte, Otxunean bizitu zan, Arantza sarreran dagon etxean, Igantzi-ko Bentatik datorren bidezabaletik gatzela.

Erreontenea Arantzako eliz-nagusitik metro gutxitara dago. Txoko atsegin baten kokaturik arkitzen da, toki baxter eta gordean, gure eliz zaarretako orma sendoen inguruetan gerta oi danez. Erreontenea etxe polita da teillatu egal-ederduna eta alderik aldeneko balkoia, eta ba-ditu lau platano zugaitz itzaltsu ere aurrekaldeko arresi barruan banaturik.

Eliz-gertuan egoteak damakio Erreonteneari erriko bizitzaren ikusmirako aparteko leku izatea. Etxe onen biran biltzen dira Arantzako gizonak patxaraz igandetako meza nagusitarako kanpai ots zeatza noiz entzungo zai. Eta elizkizuna amaitzean, etxekoandreak izango dira, leen baiño multzo txikiagotan eta gero ta jantzi beltzeko gutxiagokin, kontu-kontari jardun bizian ariko direnak, agian, asitako kontuari urrengo asteko egun da ordu berean jarraitzeko.


1902-garren urteinguruan, Erreonteneako bebarru baten Larraldek arategia jarri zuen, abere iltokiduna. Bere andrearen gain zegoen bertako salmenta arazoa, eta beronek sarri askotan emagintza lanetan ere ari bear izaten zuen, eta eginkizun ori dela ta urrutietako basetxetara joan bear, al zan bezela, maiz girorik txarrenetan eta ordurik okerrenetan.

Arategi ondoan zeukan Teodoro Larraldek zurgin-lantegia, zenbait lanabes moldatutakoa, artoa eraiteko makina –bazka-xetzeko makina–, sega-kiderra eta belarra biltzeko arrastallua, berebat zenbait zurezko errediza, landuga-beak eta baita eskuz landuak ere. Larralde argindarzain ere izan zan, gaiñera bizargiñ –buru apaintze ta bizar kentzeagatik ogei xentimo jasoaz– eta baita agiña-ateratzillia ere.

Au da, aundizka bederen, askotara emandako eskulangille aren aurkezpena, bere lantegia arantzar zenbaiten solas-leku artua izanik eta baita bertako beste bizilagun batzuen ere.

Baiña Arantzako zurgiñ arek, oraindik esan ez degun beste zerbaitetan ere ba-zuen esku ederrik. Teodoro Larraldek txistugintzan erakutsi zuen aparteko trebetasuna⁸.

8. Iragan gizaldiaren azken urteetan eta egungoaren asieran, ba-zan Arantzan eskulangillea txistugintzari emana. Au Juan Migel Biurrarena izenekoa zan. Ixkibo basetxean bizi zena Irullegi auzoan eta tresna soiñuaren jotzaille ere bera zelarik. Bere txistuakin eta Errene etxeko beste soiñu-jole bat lagun zuela, Biurrarenak Arantzako jai atsalde ta festak alaitzen zituen eta baita ingurutako erriak ere, beroietan oso ezaguna ta ixtimatua zutelarik.



Txistua moldatzera Teodoro Larralde bultza zutenak bere lantegira sarri biltzen ziran zenbait adiskide izan ziran. Eta lagun aien eskabideari amor emanaz ezpel-zura eskuratu zuen, zerra bidez ebakitzen zuen berrogeitabost zentimetro luzeko ta berrogeita bost eta berrogeitabost milimetro eskuairan. Ondoren, taratulu bidez, amaika milimetro inguro alderik-alde zuen zuloa zegion. Eginkizun au zurarotz maieko biurkiñean burutzen zuen.


Ondoren-antxiñako egikera lege zarrari jarraiki- egurkia oinburniz eragindako tornura zeraman. Emen puxkaren azalaldeak leguntzen zituen, ia-ia txistu bukatuaren neurrira utziaz. Bereala, zizel aomutur legunduarekin, nabala ta lija paperaz baliatzen zan.

Gero tresnak dituen iru zuloak zegizkion, alderik-alde bederatzi milimetro-dunak. Bi aurrean, betik larogei eta berrogeitamar milimetrotara. Beste txuloa, atzekoa beraz, lengoen alderantzizkoa, betik amaika zentimetro terdira.


Txulo auek lortzeko zurakia moldexka baten ezartzen zuen eta orrela zegozkion markak egingo. Zeregiñ oetarako birabirgiñaz baliatzen zan, beroni ortzdun eta ao biko metxa ezartzen ziolarik.

Txuloak bear bezela buruturik gelditzen dira nabalaz legunduta. Txistua soiñu fiñekoa gerta zediñ, ordea, Arantzako eskulangilleak, beste ezagutzen ditugun batzuen antzera, jardunak erakutsitako jokaeraz baliatzen zan, txulo alderikaldeko ezberdiñak zituztenak zegizkiolarik.

Bere zeregiñari jarraiki, zurakiaren goi-muturrean zulogunea estuagotzen zion metalezko pipitta ezarkiñaren neurrin. Ortarako, zuloa medarragotzeko, eskulangillea zurezko taket batez baliatzen zan, erdiborobil tankerakoa ta ziri moduan ezarria. Onela pipitta metalezko pixarra alderuntz zuzendurik uzten du. Pipitta ta pixarra bata bestearengandik banaturik gelditzen dira, txistu batetik bestera alde ezberdiña izanik, sei milimetrotik amarrerañoko aldea dutelarik.



txokolate errota
molino para chocolate



Pixarra kokatzen dan gainberakoa zizelaz lortzen da zurgin-alkian. Pipitta ta pixarra latoizko naiz alpakaioalezkoak izan ditezke, eta Teodoro Larralde bere etxean moldatzen zituen, aixturra edo guraizeaz ebakirik.

Txistuak daramazkin eaztunak zenbat izango ez da gauza jakiña. Geintsunez bost edo sei, eta oiezaz gaiñera burualdekoa ta bealdekoa, bi ertzetako soiñu-tresnaren apaingarri eta sendogarri berebat gertatzen direlarik. Lenengo eaztunak pixarrari eusten dio eta burualdekoaren azpi-gertuan dijoa.

Uztaiei dagokin tankera emateko, berak gerturiko moldeaz baliatzen zan Larralde. Burdin-txafla nai zan neurrian ebakita, ertz bati mingaiña tajutzen zion, mutur ori beste aldean idekitako ozkaduran sartuaz zizeltzar baten bidez. Uztaiak soiñugailluan ezarri ondoren, lau zulo txikitxo katigatzen zitun granete kolpez egiñak.

Ezpel naiz zurbeltzeko txistuak, Teodoro Larralde berezko margoan uzten zitun edo eskuz dizdiraziak. Soiñugaillu oen balioa ogei-ogeitamar pezeta izan oi zan.

Bere bezeroek, Praintzia, Holanda ta Argentinakoaz gaiñera, Euskalerriko urietan banatzen ziran⁹.


GOZOGILLEA

Langintza etxekoi xumeok, txokolategintzaz gaiñera beste zenbait gauzen sortzaille izan diranak, adibidez *malvavisco* goxokiak eta azukre-esponjak, arrunt ezagunak izan dirala esan bear, erririk txikienetan ere berrogei urtetako amarkada aldiraiño.

Lantegi oietako etekiñen artean ezin bada aaztu eriotz-osteko betekizunik, beroietan kontuan eukitzen bai-ziran ezko-lodi, kandelak eta bildumena, gure aurrekoengandiko eriotz ospakizun oituretan ain ezinbestekoak. Etxelantegi ain berezi aiek burnigorritzko paela, burduntzi ta beste orrelako ontziz ederkitxo orniak egon oi ziran. Lantoki egurikatzeaz naiko beztuak, argizari, kanela ta kakau usaia zeritenak, eta ordu jakin batzuetan lagun biltoki atsegiñ biurtzen zirenak.

Joakin Albistur Bereau agurtzean, Arantzako lantegi oen azken eskulangillea agurtzen gendun. Bere aitona ta izenberekoa, lesakarran zan. Lesakan euki zuen txokolategi bat eta berebat arek ere ba-zuen soiñu jotzeko zaletasunik aski. Joxe zan aren seme baten izena. Joxe Albistur bere gurasoen errian jaioa zan. Aitaren laguntzaille zela ikasi zuen lanbidea eta erriko musikataldeko zan, berorren zuzendari bere anai Kandido zelarik.

9. Teodoro Larraldeko berriok bere seme Juanen bitartez jakin ditut, eskulangintzan trebetasuna ongi asko erakutsi zuen bere aitari jarraiki. Teodoro eta Juan Larralde, J. L. Seisdedos idazleak maiz aipatuak dira «*El Diario Vasco*» donostiar egunkariko «Crónica del Bidasoa» deituriko saillean, 73-8-19 garrenean.



Joxe Albistur 1892-an ezkondu zan Arantzako Garazi Bereau Etxaiderekin.

Napar erri ontako Apeztenea etxean iriki zuen txokolate ta azukre-esponja platano itxurazkoak saltzeko denda, eta baita ezko-lodi-Arantzán tortxak deituak-kandelak eta argizegiak, margoztuak ala zurituak. Eskulangille onek bere lan bereziaz gaiñera, elizan organu-jole ere ba-zan.

Joxe Albistur 1930-garren urtean il zan, irurogei urtedum, eta bere seme Joakiñengan izan zuen etxe-lantegiak eta organu-jotzeak jarraipena, ogeita-mazazpi urtetan.

Joakin Albistur Bereau, erriko semea, 1897-an jaioa, Arantzako txokolate-gintzari azkena eman zion bezela arestian aipatu degu. Sei senide ziran, gure eskulangillea lau gizasemetatik zaarrena zelarik. Bere aitaren ondoan ikasi zitun langintzakiko xoko-ekutu guziak, eta musika irakasle berriz, Wenceslao Alzuri, bere aitaren aurreko organu-jolea izan zuen.

Joakin Albisturen eguneko txokolategintzan lan-etekiña, urte askotan zear zeregiñak berak erakutsia zan. Jakiñeko nasketa oni zegokiona ain zuzen: Amaika kilo terdi kakau, emozortzi terdi azukre, bost terdi iriñ, kilo erdi urra eta irureun gramo kanela.

Gozokigille onek kakaua Donostitik zekarren, Lizasoain eta Migel Zubiri ize-neko gauregun ezkutatuak bidalia. Eta kakauaz ari galararik, Pedro Zubizarretaren «Contrabando en San Sebastian», idazlana aipatuko dut, «Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastian», N. 7, 1973. Saiakera ontan Zubizarretak 1793-garrenko agiri bat dakar, eta bertan irakurtzen danez, Nafarroak ba-zuen eskubide kakaua, azukrea ta bainilla Ameriketatik ekarri ta iraungitzeko. Baiña Erregeak bein da berriz agindu izanarren salerosketa lege-arauz eta Errege Ondasun-zaitzaren oneta erbillia izan zedilla, aipatu agiri ortatik dakusgu ori etzela beti orrela gertatzen, beragatik Gipuzkoa muga-lapur zulo biurtuz Fraitzi muga izanik, eta Nafarroa eta Gaztelako Erreinuekin ere zerga-etxeak zituelako.

Egin dugun zearka-mearka onen ondoren, biur gaitezen Arantzara, eta Joakin Albistur-en lantegian sar, Apeztenean, askotariko salerosgintzak iraun duen toki ortan.

Bein kakaua etxeratuz gero, lenengo eginkizuna tostaketa izan oi zan, eta Albistur-ek lan ori bere sukalde labean betetzen zuen eta ekiñaldi baterako bear ainbatean. Tostaketari azal-kentzeak jarraitzen zion. Arikizun ontarako ol makur baten jartzen zun kakaua txokolategilleak, bi eskuekin bular alderaño jasoaz astintzen zuelarik. Orrela azala aizatzea iristen zuen alearen mamia garbi utzirik. Azal-kentze lan bakoitzean egun bateko txokolategintzarako bear zan lan-gaiaren erdia osatzen zuen.

Betekizun ori amaituz gero, kakaua gerturik zegoen txokolategintzari ekiteko. Berealaxe ixurki biurtzeari emango zion. Ortarako, Joakin Albisturen lantegian, beste aren antzeko askotan bezela, ba-zuten errota egurikatzez zamaturiko sutontziduna. Sutontzi au errota azpian ezartzen zan, arri aztun



baten azpian, beste iru zanpa-arri zituena ta abere indarrez erabiltzen zirenak, emen ordea, zaldi indarrez¹⁰, 1933 urtean eletrika indarra erantsi zioten arte.

Onela maniatutako kakaua palaz biltzen zuten, eta jarraian, metalezko kajoietan utzi. Ontzi oetan, egur-ikatzez zamaturiko sutontzi gaiñetan, eskulangilleak, zurezko pala agaluzedun batekin nasten kakaua, azukrea, iriña ta urrak, igo eta tosta ondoren, kakauakin egiten zuela len esan dugun bezela. Nasketa oni kanela geitzen zion, zetorren eran bere arbaztaki egoeran, arriak zeukan zulo biribilean sartu ta burnizko mazuaz xetzen zuelarik¹¹. Beste gabe, onela bukatzen zan txokolategintza. Oartuko zera noski, Arantzako langintza ontan etzutela erabiltzen tresna iraztallerik; baiña ikusi degunez, bazerabilten beste teknika aurreratuagoa arri makur batez baliatzen ziranaren aldean, atzealdetik goratuxea ta makurgunealdea iru anka gaiñean zituena –aurreko bi ta atzekoa–. Tresna au arri-mota askotarikoa izan zitekean –urdinska, pikorarrizkoa edo basaltarrizkoa–, eta ala bear izan ezkerro errotrria bezela leguntzen zuten¹².

Arri makur orren tankerak zumezko jarleku txiki bat oroitazten dit. Arri-pearen ankartean jartzen zan txokolategintzarako bearrezko zan sutontzia.

Eskulangilleak, burni-makurraren atzean belauniko, arrizko zanpagaillua erabilliaz egiten zuen bere lana. Joxe Migel Barandiaranek dakar, Aranzadiri arturik, txokolategintzarako arria Españian egiña bai baiña Ameriketako delatatorriz eta tankeraz. Angotarra txokolatea eta baita arria ere. Eta aintxiñako lan-tresna onetzaz ara zer dion iztegiak: «Arri laukia da, garaikoaldetik zerbait makurra, iru ankaduna, zerbait gainbera egiten duelarik, bere gain belauniko mexikotar emakumeak igo oi dituzte zilindroarri baten bidez, artoa eta beste aleak. Españian txokolatea eskuz egiteko erabilli oi da».

Darraiogun ordea txokolategintzari, ez baita bukatzen oraiñ arte egindakoz.

Txokolatea, orea egiña, esan degun ontzietatik ateratzen du, libera bat, au da, irureun da irurogei gramo or nonbait artzen ditun burrunztaliz. Txokolate au ojalatazko azpil lau paper zuri arruntez estalian uztutzen du. Irureun da irurogei gramo ore orrekin amasei lakain edo txokolate pastillak deituak egin oi zitun. Iru libra, au da, berrogeita zortzi pastillek, txapa deritzana osatzen zuten. Txapa bi eskuekin astinduz txokolatetxo biribillak ateratzen zitun.


Azkenik, zati oetako bakoitzari etxe-sillua ezartzen zien, egillearen izen-abizenen leen izkiak, eta, beren azpil-lauetatik aldatzeke, alki batzuen gaiñean ozten uzten zituen.

Txokolate pastilla oek, bi sosekoak –amar zentimokoak– deitzen zitzairen; baiña Joakin Albistur Bereauk beste zati txikiagorik ere molda oi zuen, sos bateko pastillak alegia –bost zentimokoak–, erriko umeteria erostalle zuelarik.

10. Dakigunez, ba-dira txokolategintegiak lan bererako astoaz baliatzen direnak.

11. Sunbillako txokolategintegi batean, eginkizun berdiñerako arrizko mazua zerabilten.

12. Jose Migel Barandiaran: *Obras Completas*. 2.128 orr.



Sunbillan txokolategille zaarren lantegi baten izan giñan. Bidezabalaren ondoan, Amallenea deritzan etxepeko denda-atzean arkitu gendun noizbait Florentino Tabernarena izandako lantegia. Florentino Taberna 1921-ean il zan, eta bere sendiak esan zigunez, txokolatea amasei pikorretan banatu oi zuen, libraz-libra pixatu ondoren. Puxka auek arrinabarraren gaiñean oztutzen zitun; ez ordea aurrez lantegi etxearen ezaugarritz markatu gabe.

Gaureguneko gai onekiko langintzak ikusirik, beure askotariko zabaleran, aurkezpen ugarian eta lan-emankizun oparoan, Arantzako naiz beste edozein oien antzekoak kokkor eta be-maillakoak jotzen ditugu, ziran bezelakoxeak, noski. Etxelangintza batzuk ziran soilki, bere moldaketarako tresneri aundirik gabeak eta salmenta urrikoak. Guzi oiek ala izanik ere ordea, ez uste izan iñolako moduz ori etekiñaren ontasun-kaltetan zijoakenik, alderantziz baizik, arreta aundiz eta egillearen da eskulangintzaren izen onari arduraz begiratzuz egiña baizik.

Boladua edo esponjagintzarako, kilo bi azukrek litro erdi ura bear izaten du. Nasketa soill au burdiñontzi zurezko kirten luzedun baten surtaratzen du, egur-zotzaz ontzikoari eragiñaz. Irakitean aparra kentzen zaio, zeregiñ ortarako bearrezko den tresna berezia, irazkia deritzana darabilkila. Bereala, mingarratza edo azido azetiko deitua geitzen dio.

Aurrerago, *fuerte* deritzan unera iristean –eta gozokigilleak ala derizkio baldiñ tanta batzuk ur otzetara ixuriz karamelu biurtzen ba-dira–, burdinontzia sutatik kentzen du eta zurigarri koillarakada, arraultz zuringo ta azukrez egiñiko merengea ongi eragiña eta zitroin zumu tantaz osaturikoa geitzen dizkio.

Irabiaketa azkarrarekin jarraitzen du, goraiogutzen asi arte. Era ortan jarraiki, urgozoa zerbait jeistean, irabiratzeari uzteke berriro ere igoeraztea lortzen du.

Une ontaratzean, eskulangillea, geratzeke eta atzeraka laisterka-txikian burdinontzikoa, aurrez gerturiko paperezko molde batzuetan ixurtzen du, beroietan bereala loditzen delarik. Moldetzat darabiltena paper zuria da eta burniarizko ogeitabost zentimetro inguru zabaleko, ta bi metro ta irurogei ta amar luzeko armazoi batzuen barruan ezarririk doa.

Oraindik ere boladugintzan ari den lantegiren bat edo beste ezagutzen dugunarren, azukrezko esponja luxanga au gure egungo azoketatik ia zero ezkutaturik degu.

Orain ogeitamar bat urte, ordea, erostalle askotxoren aogozagarririk artuenetakoa zan. Basokada ur otzetan urturik, berorixe zen noski gure aurrekoen edari preskagarririk kutixiatuena. Txokolatea esponja urarekin izan oi zan garai baten atsalde-erdiko solasaldia andikigiroz ornitzen zuena.

Gaur ordea, esponja-ura bikotuak beste edari berri kanpotarrek erabat bazterturik dute, eta arestian aipa ditugun beiñolako giza-billera aiek ere geienbat gure gizarte ontatik ezkutarazi dituzte. Ikusia bai-dago orainaldi au ez dela geldi egotekoa, ibilli bearrak iruntsitzekoa baizik.

Igantzi-ko otarlantegi bat

Igantzi erri ontako industri-ianik gogozkoena molde ezberdiñeko saskigintzara bereziki zuzendua izan da. Eta esandakoaren indargarri, naikoa dut jakiñaraztea orain ogeitamar urte ogei bat otargille ba-zirala, gaur ere oraindik lau lantegi idekiak dirautelarik, Bosturieta deritzan Nafarroako errialde ontan. Bizi diran azken saskigilleak auek dira: Sein anaiak, Garberea etxean; Migelena anaiak, Iruien-bordan; Jose Etxebeste, Aiesteneko-bordan, eta Agustin Antxordoki, Ola-Etxeberrian, au, erriko saski-lantegirik zaarreneko buru izanik.

Berrizaun deritzan auzoan eta bidezabaletik gertu arkitzen da Ola-Etxeberria izeneko etxe zabal da luzea.

Ingurumarian, Arantzara ta Igantzi erri-kaxkora garamazkin bidea bitarteko dala arkitzen da Igantziko Benta edo Hita Ostatua. Jatetxe onen bestaldetik, Molinenea agertzen zaigu, aintziñako bustingintza errota, auzo bereko portzelan-industriarako lanean aritzen zena. Bustin-lantegi artarako bear zan arria Artikutzatik ekarri oi zuten, eta mando gañian ekarri ere. Len esan ditugunak eta beste amabi etxek osatzen dute Berrizaun deritzan auzoa.

Ola-Etxeberrik ba-du bere sotua, gain-bizitokia eta ganbara. Etxe egoaldeko bazter baten daukazu Agustin Antxordokiren saski-tokia.

Antxordoki-ren lantegia egituraz laukizuzena da, sei metro luze ta lau zabal. Kanpokaldetik sarreraduna, ba-du beste atea ere barrutik eskulangillearen bizitegira daramana. Onen aurrez-aurre leio batek damaio argitasuna, eta leio ta sarrerako ate bitartean ageri da labe laukizuzena, iru metro ta amar zentimetro luze ta metro ta bost zabalekoa. Bere ladrilluzko ormak igeltsuz jantziak, garaikaldetik borobilla ta aoa lauki egiturazkoa –ogeitamabost eta ogeitamabost neurrikoa– ta zurezko atakaduna. Aoz garaikaldetik, lau burni gurutzatzen dira, barrenean. Lenengoa berrogei zentimetrotan kokaturik dijoa, eta bestea metro ta erditan. Burni aga oen gaiñean ezartzen dira txarriak egos ditezten.

Labe kanpaia ladrillu ta igeltsuzkoa, beste guziaren arabera, lantegi sabairano luzatzen da eta tubo bidez etxeko teillatuz gaindi agertzen.

Labeak aurrekaldetik zurezko tresna bat dauka, zolatik irurogei ta amar zentimetrora, eta bertan biltzen dira ari galbanizatua eta gaztain txafila fiña asto-saskiak burutzeko balio izango duena. Labe eusgarri, alde batetik zura-bea bi pillareen gain ezarria, eta bestaldetik ormari erantsia, abe ortatik datozen lau zearabeen bidez orma barruan sarturik.

Zearabeen gaiñetik olak eta oien gaiñ bustiñ estalkia ladrilluz jantzia, zola osatzen duela, eta saskigilleak moldeak eukitzeko toki bezela erabiltzen duena.

Labe azpikaldean dago lantegiko tresneri gordetegia; baña aintziña, urputua lantokitik urrun xamar zeukatenean, berori erabiltzen zuten astean beiñ ekartzen ziran txarakiak gordetzeko leku bezela ere. Gaur ordea, potzua etxe inguruan dutelarik, langaia bear duten garaian ateratzen joan oi dira.

Labearen aurrez-aurre saskigiñaren alxia ikusten degu, lau ankaduna, metro ta larogei luze ta ogeita amazazpi zentimetro goruntz dituena. Alki gaiñean begiz jotzen ditugu zurezko bi mazeta eta altzairuzko matxetia. Urrean dago eskulangillearen esertokia ere otar moldaketan aritzeko, eta beste bi alki noizik eta beiñ otargillearen seme Juan Luis eta Agustiñ Antxordokirentzat.

Ola-Etxeberriko lantegi ormak gaztain-zurez estaliak daude zolatik gora metro bat bidean. Ormari erantsiriko balda batean motozerra dago txara ebaketarako eta baita ere inguruan gaztain zuretik katiaturik otargintzarako lanabesak, zare-burnia, listoi batetik zintzilik lau aziak edo labanak, billabirgiña –beste langintzaren batetik datorren tresna– eta esku-zerra enbozarra ebakitzeko. Alanbre ari batetik zintzilik baita ere saskiburniak, mutur bat kakovua eta bestea eskuaira antzean tajutua dutenak. Burni oek neurri ezberdiñekoak dira –berrogei zentimetrotik irurogeita amabosterañokoak–eta karel edo uztaiak laukiluzeak ateratzeko erabiltzen dira.

Eta azkenik esan dezadan lantegiko zola, beste otar-langintza berekoek bezela, gaztain zirpillez estalirik arkitzen dela, beroietaz labia pizteko baliatzen direlarik.

Pedro Antxordokiren aita zanarengandik dator ain zuzen Igantzi-ko otar-obraura au.

Pedro Antxordoki nafar iri ontako Mendibil Txiki-n jaio zan, eta irurogeitabi urtedun il zen 1938 urtean egoitza berean. Berorrengan dugu bada, etxea utzi gabe saskigintzarekiko ezkutu-mezbutuak beregandu zituen eskulangillea.

Bere buruaren maixu izan zen, beste gure arteko ainbat baserritarren antzera, bizi bearrak eskatzen duenez erantzun egoki bat ematen saiatu diran oietakoa, ortarako ainbat lanabes mota etxelanetarako moldatzen dituztelarik.

Igantzin, otargintzan, Pedro Antxordokiren garai bereko bezela aitatuko ditut Alejandro Zozaia eta Angel eta Pedro Urtxegi anaiak, oek Iruiena ta Isa-

berri-n lantegia zutelarik. Igantziar saskigille zerrenda ontan arkitzen ziran Angel Urtzegiren seme Pedro zana, eta Jose, noizbeinka saskigintza fiñean aritzen dana.

Sebastian Zubia eta Oiñatiko bere iru erritarrek eduki zuten otar lantegia arestian aitatu degun Molinenea etxean.

Pedro Antxordokiren lantegian etzegon laberik eta eskulangille onek otzean landu bear izaten zituen zumitzak. Beraz, eta ba-dira moldaera berdiñean aritzen diranak, txarokia ebaki eta pitzakiak atera al zitzan pillare batez baliatzen zan. Enbor ori zolatik asi ta goia jotzeraño zijoan, eta metro ta ogeitamar zentimetrora ebakigunea zuen txara muturra sartzeko, aurrez muturretik zentimetro gutxitara pitzatu bat egiten ziotelarik. Ebakidura onen bidez, otargi-lleak, palanka moduan txarakiari eragiñaz, poliki-poliki zumitza ateratzen zuan. Jokaera ori berrituaz bear ainbat aldiz txara bakoitzak eman zezakeana eman arte. Onela lortutako zumitzak-aintxiñako erara, alegia-, barrukaldetik bakarrik leguntzen zituzten; oraingo langintza-bideak ordea bi aldetako marruzketa bear izaten du, geroago ikusiko degunez. Esan dugunaz gaiñera, Pedro Antxordokiren langintzakera zerbait aldatua du gauregun bere semeak.

Lenago adierazi dudanez, Pedro Antxordokik otzean moldatzen zuen zur-lantze lana, au da, egosi gabe. Gaztain-txara ebakitzea iraillaren amabostetik apirillaren amarrera bitartean egin oi zuen, izerdia geldirik dagoen artean, alegia. Txara ebaketa aizkoraz egin oi zuen eta zumitzak idortu zitezen aste-betean edukitzen zituen. Ondoren ganbaran uzten zitun, ogeitalautik ogeitamasei zumitz sorta bakoitzean bildurik.

Otargintzari ekin aurretik zumitz sorta bat artu eta lantegi ondolik zear dijoan Bidasoa ibaian sartzan zuan. Andik ogeitalau bat ordura uretik atera eta banan-banan, gaztain-zumitzak leguntzen zituen azia ta nabala ezagunaren bidez.

Azia lanalkian aritzean erabiltzen zuen, eta nabala edo labana berriz eskuiko zango gaiñean zumitza ezarriaz aritzen zanean.

Lendabizi zolia edo ondoa gertatzen zuen, zumitz azaldunaz eta beste zumitzak baño zabalagoaz. Zeregiñ ori burutzeko solairuko ola gaiñean jarriko zituen bost ondozumitzak denak aldebateruntz eta beste bederlatzi aiekin gurutzatzeko. Amalau zumitz oek bi meeagoekin gurutzatuz josten ziran. Axaldunak deitu izan zaie. Gaztain-zurezkoak ziran, gauregun darabilzenak bezelaxe, eta beste zumizkiak bezela gertutzen ziran.

Otarraren gorakoari ekiteko jositako ondoari ertzetatik eldu eta ankar-tean ezartzen zuan, azaldunakin josiaz-iru oraingoan-orrela otar ipurdia moldatzen zuelarik.

Saskiak bere itxura artzean, saskigilleak uztaiia sartzan zion. Gaztain-zurezkoa izaten zan berau ere eta Pedro Antxordokik otzean landu oi zuen. Ertzak marruzkatzen zizkion geroko elkar-ezarketa erreztearren eta solairuan

zabalduaz, aldebatetik oiñaz baliatuz eusten zion, bitartean eskuz bear zan bezela moldatzen zuelarik. Uztaia edo burrunzikia ixteko axial baten bidez lotzen zuen.

Bein uztaia zumitzartean jarri ezker josi-lanean zerraikion nai ainbateko goruntzakoa iritxi arte. Orrela kontura zindezke uztaiak moldearen egitekoa betetzen zuela.

Ondoren, gaureguneko lanegikera berdin batean, otargilleak zumitz muturak artu eta zare-burnia deritzan lanabesaren bidez, uztaia biltzen zuen eta sendotzen eta zumitz tartean ezartzen bi eskuleku-gune utzirik, azaldun fiñez lotuta gelditzen ziralarik.

Pedro Antxordokik tajaturiko otar klasetan ba-degu bat buruzaria deritzana, Baztango buruzaria, alegia. Lokarri baten bidez elkaturik, buruzariak abere aldebanatan ezarri oi ziran. Saski orren aoa borobill antxa zan, 62 zentimetro erdi-erdi. 45 zentimetro goibeak, eta ondoak 28 eta 32.

Orain berrogeitamar urte amairu errealean saltzen zan.

Bosturitako onda-saskia edo buru-zarea, Agustin bere semearen bostgaren zenbakia zeraman lan-emaizta zan. Baserritar artean erabilli aundikoa izan da. Zimaurketan naiz arto edo erremolatxetan orobat erabillia.

Bere neurriak ez ditu aldatu gauregungo ondasakiak dituenarekin: irurogei ta irurogeiko aoa, eta goibeak berrogei, ondoak berriz ogeitamar ta ogeitamar zentimetro.

Iru pezeta izan oi zan bere balioa saltzerakoan.

Measaskia, *esporta terrera* edo obrako saskia txikia zan, oraingoan neurritsukoa. Lurrez eta arriz zamatu oi zan. Argiñak badarabilte oraindik ere.

Bere aoa borobillantxa du, 42 zentimetro alde-alde. Goruntz 26 zentimetro eta ondoak 20 ta 20. Bi pezetan saltzen zan ortxe-ortxe.

Erdiko klasia izenez ezaguna, onda-saskia ta measaskiaren erdibitarteko neurrikoa zan. Emakumeak batez ere erabiltzen zuten, abere-janarekin eta igali edo frutarekin. Bere azpiak 22 eta 22 zentimetro zitun eta goruntz 36, bere ao neurria alderik-alde 48.

Orain berrogeitamar urte, Pedro Antxordokik amar erreal eskatzen zituen erdi klaseko otar oietako bategatik.

Saskigillea erriz-erri ibilli oi zan otar saltzen, Iruñako iriburuan izan ezik, an, aurrez eskabidea egin zutenei.

Pedro Antxordokiren erostunak bereziki Igantzi, Arantza, Doneztebe, Elizondo, Irun eta Iruñakoak ziran.


Pedro Antxordoki saaskigilleak zortzi seme izan zitun–iru neska ta bost mutil– eta oietako bi, Bernardo ta Agustin, aitaren ondoan ikasi zuten bere lanbidea. Bernardo lantegian jardun zan amazapzi urte bete arte, ta Agustiñ degu azken berrogeitamalau urteotan otargintzan soilki aritu den eskulangillea.

Lenengo aitaren ondoan, 1938-garrenean berori il zan arte, eta gero bakarrik, bere etxelanbidearen buru delarik. Gaurengungo saskigille onetzaz esan dezakegu, naiz eta Orga-Etxeberri baserrian jaioa izan, beti Ola-Etxeberri bizi izan dela, orain lantegia daukan toki berean.

Agustin Antxordoki saskigillea gaztain-txaraz Goizuetan ornitzen da, Laue-rieta deituetatik eta Igantzi bertako Oianberri basotik.

Pedro Antxordokik gurdia kargatzen zuen gaztain-txaraz lantegiraño karriatuz, eta gaur gauza bera egiteko, bere semea kamioiaz baliatzen da.

Txarakia potzu ondoan uzten du legortzen, bi illabetez, naiz ta ala bear izan ezker ogeitamar egunetara epea laburtu. Gero txarakiok ur-putzuan sar-



tzen ditu –Agustin Antxordokirenak bost metro luze ditu ta bi zabal eta bat eta berrogei ondoraiño– eta egin bear duen otarraren tamaiñak eskatzen duen ainbat ateratzen ditu.

Txarakiak labean sartzen ditu eta burni batzuen gaiñean jartzen egos ditezten. Andik ogeibat minutura fiñenak erretiratzen ditu eta berdin gero lodiagoek, lanak berak agintzen duen neurrian. Txarakiak bear duen egospuntua artzen duenean labe aoko ataka itxitzen da, baiña artean erdiegosirik baldin ba-daude labea berriro betetzen da ta atetxoa zirrikituan uzten.

Ondoren, txarakia labetik atera berria erdibitzen du. Ortarako, alkitxo baten eseririk, mutur bat ebakitzen dio matxetian bidez, eta lan-tresna utzi gabe egurraren biotza billatzen du onela txara erdibitzen duelarik.

Lan au saskigilleak eskuaz baliaturik egiten du ta txarakia ankaratean estutuaz. Ori bera berritzen du txaraki erdiarekin, eta eraberean jarraitzen du txara-zimitzak ateratzen gai bakoitzak eman ala. Txara ongi egosia baldin bada, errez azalgabetzen du esku utzez.

Zimitzak atera ondoren beroien nabaltze edo leguntzea dator, eskulangilleak alkian exerri ta ortarako bearrezko zaion azia deritzan lantresna erabiltzen duelarik. Gero, zimitzak iriki ta ebakitzen ditu, josi-lanak eskatzen duenez, esia lortzearren.

OTARGINTZA

Langintza-biderik ez da aldatzen, Agustin Antxordokiren eskuetatik ateratzen diran otar mota ezberdiñak moldatzean. Ala bada, asto-zare ta ondaskia deitzen zaien modukoetaz bakarrik itz egingo det, botsgarren zenbakia dute-netaz, alegia.

Ondaskia tajutzeko, saskigilleak zola gaiñean bost onda-zumitz zabaltzen ditu. Zimitzgai oen zabaleroa, zimitz-neurriz artua, otarraren ondoarena izango da eta lau zimitz-izpiz eioko ditu, zumitz puxkaz banaturik gelditzen direla, asieran jarritako bost ondazimitzen luzeradutenak.

Gaztain zerrenda auek metro ta irurogei zentimetro neurrikoak dira, esku-lekukoa ezik, au metro ta berrogeikoa baita, aldebanatatik amar zentimetroz motzagoa.

Otargintzakiko lenbiziko lana bukatu ondoren, saskigillea, moldatu duen zatiaren gaiñ jarri ta zumitzgaiak bildu ta goruntz jasotzen ditu. Zimitz mutur-rrak emezortzi dira eta oietako batek erdibitzen du guzia, zenbakiz ezberdiñ izan ditezten, naitaezko baita ori otar-joskera bear bezela burutu al izateko.

Otargintzak eskatzen duen zumitz kopuru ezberdiñ au dala ta, Antxordokik kontatzen dit, Lesakako gazte bat joan zela bein Etxalarera saskigintza ikastera praintzitar eskulangille ezagun batengana, garai artan iri artako bizilagun zana.



Agustín Antxordoki saskia prestatzen. Igantzi, 1974



Agustín Antxordoki saskia prestatzen. Igantzi, 1974

Itxura danez, ikasleak otar-zati bat bakarrik egiten zuen, beti bera, eta zumitzgai ebakitzeaz etzan konturatzen, bere nagusiari zegokion zeaztasuna bai zen ori.

Denporaz, bere jaioterrira itzulirik, lantegia idekitzea erabaki zuenean, konturatu zan etzela gauza otargintza lana bear bezela burutzeko, bilbatzea, zumitz-eiotzea lortu ezin zuelako. Ordun, ikasleak, beste izenik ezin eman dezaiokegu, bere maixu izandakoa gogoratuaz, onela esan oi zuen: «Frantzes a bear yutek engañatzeko».

Itzul gaitezen berriro Igantzi-ko saski-lantegira. Saski josketa otar ondotik asten da eta zimitza erdibituarekin asi ere. Esi-gai az asiera damaio, eta ondoa lortuz gero, axaldun zerrendaz jarraitzen du iru aldiz bira osoa goruntza ematen diola. Zimitz eiotzea aurrera eramateko, uztai tokiraño alegia, moldea ezartzen dio, alanbraz itsatsirik, ortarako aurrez onda-zimitza bati moldearen aldebanatatik txulo bi egiñaz, eta mailluz jota beretokiratuz. Ondoren zumitz gurutzelkartzeari jarraitzen dio, beti ere zare-burniz baliatzen delarik. Bigarren edo irugarren bueltan, jakiñeko zimitzak darabilzki otar eioketan. Onda-zimitzak deritzanak baño zerbait melarragoak.

Ondaskiaren bi eskulekuak otar-ondotik ogeitamalau zentimetrora dijoaz eta bear dan tokian zimitzari ebakidura bana egiñaz ateratzen dira. Ebakidura oek ez dira noski oso-osokoak, xerrendaren alde bat utzi bear baita beste zimitz gurutzetuen barna eiotuz joan dediñ. Karel edo uztai a jartzerako, beste onda-zimitzak zirpildu, metu egiten ditu barrukaldetik azken eioketari ekin dezaion.

Otargintza mailla ontara irixtean, saskigilleak, alanbre-aria askatu, moldea kendu ta burruntzikia ezartzen dio, au txaraki fin bat da iltzez josia, eskulangilleak beroan tajutua, alkian exeri eta esku-belaunez baliaturik.

Burruntzikia deitzen dioten uztai au xerrendaz osatutako biribilgune barruan jartzen du. Gero, zare-burnia berriro erabilliaz gurutzatuen artean toki egiten du, azpildu, uztai a biltzen duten onda-zumitzen muturrak gainbera tarteturik katiatzeko. Segidan, burruntzikia lotzen duten onda-zumitzak garbitu egiten ditu, txunkundu. Gurutzetua ta uztaiaren tartean gelditzen dan uea, eskulekuetakoa ezik, zimitz zaillagoz betetzen du, aurrez otargilleak ortarako bereziki gorderik zeuzkanaz alegia. Bereala, osatuaren zimitz-muturrak ebakiaz garbitua gelditzen da. Eta onela apaundurik azkenburutzen du ondaskia deritzan otarra.

Begiz jo dezadan orain asto-saskia edo asto-zarea deritzan otarra; Agustín Antxordokiren lantegitik irtendako iru otar klaseen tajukera-bidea berdiña da.

Saskigilleak uztai gerta-lanari ekiten dio; gaiñaldea, ondoa ta estalkia. Iru oien lana berdiña da. Ortarako artzen du txaraki fin bat egosia, eta solairu gaiñean zabaldurik neurtu eta ebakitzen du egin bear duen otarraren neurrira, asto-zarearena bi metro ta ogei zentimetrokoa uztai a eta amar zentimetro gutxiago zolan, oietatik ogei zentimetro elkar-loturarentzat direlarik¹³.

13. Bior-saskian bi metro ta berrogei zentimetroko txaraki a bear da, eta mandoarentzat baldin bada, bi ta berrogeitamar. Azpikoak zortzi edo amar gutxiago, estalkiaren berdiña da.

Ondoren, otargiñak, alkian jarririk eta azia edo labana erabilliz, ertzak melartzen dizkio. Zumitz-gurutzatze lanari ekin aurretik uztaiak burni ari bidez sendotzen dira lana bukatzean kentzen zaizkiolarik. Ari ontan ezartzen zaizkio bi xerrenda azaldunak. Uztaia onda-zimitz oso zabal baten bidez josten da eta bi azaldun esandakoen bitartez eiotu. Beste xerrenda edo onda-zimitza jarri ta zeregiñ berdiña berritzen da uztai bira osoan zear. Asto-saski aundienak ogeitairu onda-zimitza daramazki geienetan, eta iñoiz baita ogeitabost ere; baiña berresan dezadan, eio-lana burutu al izateko beti kopuru ezberdiña izan bear duela, ondaskiaz aritu geranean esan dudanez.

Bere lanari jarraiki, Antxordoki, exeri, zimitza artu eta eiotzen asten da betikgora saski-burni naiz zare-burniz kolpetxoka.

Gurutzaketa lana bukatu-rik, karel edo uztaia sartzen zaio eta zumitz-zerrenda mutur-zorrotzez bildu ta gainbera barrukaldetik itsasten.

Otar aldebanatan zimitzari ebakidura bat egiñik, eskuleku izango diran tarteguneak lortzen dira. Oar dezadan burruntzikia edo uztaia saskigintza bukatu arte burni kako batez katiatzen dala.

Ondoren gurutzetuaren muturrak txukuntzen ditu, uztaiaren kakoa eta bekoaren alanbre aria kendu, eta astozarearen gertutzeari ekingo dio.

Estalkiak otar ondoak bezelakoxe uztaia darama, eta bere egin-langintzarako burni kako baten bidez sendotzen du, beste uztaietan egiña duenez. Bi edo iru onda-zumitz eduki lezazke luzetaka eta zimitz zerrenda fiñez eiotuak.

Zumitz-eun ontan iru utsgune utziak izan dira. Oietako bietatik, alde berean eta albora-xamar, bi zerrenda azaldunak sortzen dira, uztaia bilbatuaz eta zumitz gurutzatuen tartean katiaturik bixagraren ekitekoa beteaz.

Beste aldetik, alambre-ari bati loturik, txapa bat erdi bildua ta uztaiaren katiatua, estalkigunetik zear saskia inguratzen duela otarraren zumitz gurutzatuen artean dijoan beste alanbre bati lotzen zaiolarik.

Basarri asmakizuntxo au da ain zuzen otarra itxitzekua deritzana. Asmakizun au lortzeko, ikusten degunez, eskulangille bakoitzak ba-du bere xaloan moldakera berezirik.

OTAR MOTA BEREZIAK

Agustin Antxordokiren lantegian egiten diran saskiak, batetik zazpiraiñoko zenbakia daramate. Eta arestian esan dugunez, oiezaz gaiñera, asto-zarea edo asto-saskia ere egin oi dituzte. Otargintzaz kanpora beste eskulanik ere ba-dagite etxe-lanbide ontan; ateordeak, aterki-ontziak eta ogi-otzarak.

Lenengo zenbakia daraman otarrak berrogeitabi zentimetroko aoa du, emezortzi ta emezortzi ondoak eta ogeitabi goibea.

Bidezaiñak, kamiñeruak, erabili izan zuten beren bide-konpontze lanean eta beragatik Diputazio-zestua izenez ezagatua izan da.

Gauregun ez da egiten. Lenago Nafarroako Diputazioari saltzen zitzaizkion eta bere balioa 24 pezeta zan, orain ogei urte.

Bigarren zenbakia duen saskiak 48 eta 48 zentimetroko aoa, 20 ta 20-ko ondoa eta 26-ko goruntzakoa ditu.

Bere zertarakoa, etxegintzarako ta mendi berdinlanetarako. Esporta terrera edo measkia deituraz ezagutzen da.

Etxegiñak eta Diputazioa bere bidezaiantzat izan oi ziran eroslerik aundienak.

Orain ogei urte oien salneurria 27 pezeta zan. Gaur measkirik ia ez da egiten.

Irugarren zenbakidun saskiak 52 eta 52 zentimetroko aoa du.

Ondoak 24 eta 24 eta goruntz 30-eraño iristen da.

Emakumeak bere zeregiñetan darabilte eta baita obratan argiñak ere zaborreria ateratzen. Irteera txikikoa da saski mota au. Salmentan, esan dugun urte aietan 34 pezeta egiten zitun. Ez du iñolako izen berezirik.

Laugarren zenbakidunak neurri oek ditu: 56 ta 56 aook, 28 ta 28 ondoak, eta 36 goiruntz. *Mediano de Baztan* arrotz izenez ezagutzen da. Bere balioa berrogei pezeta zan, eta erabilkizunez aurrekoaren berdiña. Dantxari-nea-n ditu erostunak.

Bosgarren zenbakidunak neurri ezberdiñeko otar bi dira. Bata, Bidasoa aldean erabiltzen da, bizkar-zestua edo ondaskia.

Aoak 60 ta 60 zentimetro ditu, eta ondoak berriz, 30 eta 30, goibeak 40.

Izenak berak dionez, bizkar-zestua baserritarrak lepogaiñean eraman oi du.

Asko erabiltzen da ta berrogeitamabost pezetan saltzen zan.

Zenbaki berau duen beste saskia, Nafar Erriberako egiña zan batikbat.

Miaski edo kuebano motakoa da ta eskatzen dutenek, Baztan-erako bosgarren zenbakidun eraberritua esaten dute, an bertan buru-zarea deitzen zaiolarik.

Bere neurriak: 58 ta 58 zentimetroko aoa, 28 ta 28-ko ondoa ta 45-eko goibea. Bere prezioa 55 pezeta. Baztan Ibarrean zerbait erabilia da batez ere maats-biltzerakoan.

Seigarren zenbakia daraman saskiak 64 ta 64 zentimetroko aoa du, 32 ta 32 ondoak eta 44 goibeak. Dantxarinean du bere erostokia, andik Laburdi-aldeko errixketara birsaltzen dutelarik. Nekazari lanetan darabilte. Asko saltzen da otar au, ta bere salneurria larogeitamar pezeta izan oi da. Ez du izen berezirik.

Agustin Antxordokiren lantegian zazpigarren zenbakiz ezaguna da Baztannen ogizabalketan darabilten saskia. Ao neurria 68 ta 68 zentimetro, ondoak 34 eta 34 ta 48 betik gorakoa. Arto-karriotan erabiltzen dute. Baita ogi, belar eta lastotarako ere.

Dantxarinea du bere salerostegi jakiñekoa. Saskigiñak 140 pezetan eman oi zuen.

Ogigiñentzat ere molda oi dituzte zazpigarren zenbakidunak baiño aundia-gorik. Oiek dira otargille trebe ta ongi-ikasiak moldegabe eiotzen dituenak, beso ta zango utsez baliatzen delarik.

Otar oek zurezko sendogarria edo txarrantxa daramate ondoan, berau iru listoi parez-pare goibe berdiñean zumitzartean gurutzatuek osatzen dutelarik.

Panaderiko saskien neurri ezagunenak oek dituzu: 58 ta 58-ko aoduna ondoz ere berdiña. 70 zentimetro gorakoa. Uztai ondoan, zumitz gurutzatuen goialderuntz lau usgune ditu, amabi zentimetro luze ta lau sakon bakoitzak, gero eskuleku izango diranak. Bere erabilkera errezagotzeko, ogitegiko saskiak lau eskuleku dituzte, zazpigarren zenbakiduna izan ezik, onek bi bakarrik bai ditu.

Otar onen balioa 240 pezeta zan. Oraintxe bertan naiko erabillia da.

Ba da beste okindegi-saskia ere 70 ta 70 zentimetroko ao ta ondoa dituen, ta 50 zentimetro gora. Bere tajukoetan erabilliena da ta aurrekoak ainbat balio du.

Lengoen egiteko bera betetzeko, Agustin Antxordokik beste otar bat ere egin oi du, 40 zentimetro gorakoa ta 90 eta 70-ko ondoa eta aoduna, 290 pezetan saltzen zuena.

Asto-zarea edo asto-saskia emankizun aundikoa da Igantzin. Mota berekoak, ondoz zerbait txikiagoari tapak egokituak dituztenak, iru neurritakoak egiten dira.

Lenengo zenbakiduna, mando-zariak, 80 ta 50 zentimetroko agoa du ta goibea 50-ekoa.

Bere prezioa 325 pezeta. Otar au gutxi egiten da.

Bigarren zenbakiduna bior-saskia da. 75 ta 45 aoduna, ta goibea 45. Orain ogei urte 275 pezetan saltzen zuen. Asko erabiltzen da.

Irugarren zenbakiduna asto-zariari dagokiona da. 40 zentimetroko goibea du, 70 ta 40 aoak. Ondoa txikixeagoa du iru mota ezberdiñetan.

Asto-zariagatik, saskigilleak 250 pezeta eskatzen zituen. Gauregun ere arrera aundiko otarra da.

Agustin Antxordokik ez du orain arrai-saskirik eiotzen. Otar au, neurri ezberdiñekoa da, arraia itxasontzitik lurreratzen erabiltzen zuten.

Ao ta ondoak 70 ta 50, goiebeak 30, 32, 35, 38 ta 42 zentimetrodunak.

Bere salmenta prezioa, orain ogei urte, 25 pezeta.

1982 go. urtean idatzia.